

**Hondarribiko Alardearen Gatazka Lehen Hezkuntzan:  
Begirada Transfeminista Bat  
GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Iñurrieta Garmendia, Oier.

ZUZENDARIA: Albizu Mallea, Uzuri.

**2021-2022**

Bidaide ditudan Irati, Jone eta Peruri.  
Iritsi berri zaigun feminismoaren lekukoaren  
defentsa duina manten dezagun.  
Datozeneri pasatzea tokatzen zaigunerako,  
garaipena gurea izanen da.

# Laburpena

Gradu Amaierako Lan honetan Hondarribiko Alardeak dituen ertz desberdinen inguruan hausnartu da, eskola ardatz hartuta, Lehen Hezkuntzako etapa zehazki. Eskolak eta herriko gatazkak duten hartu emanaz hausnartzeko, bertako lau hezitzaileen bizipenak eta ikuspegiak jaso dira. Horretarako sakoneko elkarrizketak burutu dira, metodologia kualitatiboa baliatuz. Lan guztian zehar gatazka zein hezkuntza ikuspuntu transfeministatik hausnartu dira. Konponbidea ipar, lan hau etorkizunera begira dago.

**Hitz gakoak:** Generoa, Hondarribiko Alardea, transfeminismoa, pedagogia feminista, Lehen Hezkuntza.

# Resumen

En este Trabajo de Fin de Grado se reflexiona en torno al Alarde de Hondarribia, con la escuela como eje central, en particular la etapa de la Educación Primaria. Más concretamente, se indaga en la relación entre la escuela y el conflicto del Alarde desde un posicionamiento transfeminista. Para ello, se recogen vivencias y puntos de vista de cuatro educadoras mediante la entrevista en profundidad, que es una de las técnicas de generación de datos más usadas dentro de la metodología cualitativa. Con la resolución como fin, el trabajo está enfocado al futuro.

**Palabras clave:** Género, Alarde de Hondarribia, transfeminismo, pedagogía feminista, Educación Primaria.

# Abstract

This work reflects on the Hondarribia Alarde, taking its impact on local schools as the main focus of investigation, specifically at Primary Education. It delves into the relationship between local schools and the Alarde conflict from a transfeminist viewpoint. The experiences and perspectives of four educators were documented through in-depth interviews, which is a recognised research technique in qualitative research. With the resolution as the main goal, the work looks towards the future.

**Keywords:** Gender, Hondarribia Alarde, transfeminism, feminist pedagogy, Primary Education.

# Aurkibidea

<b>Hitzaurrea</b>	<b>1</b>
<b>1. Marko teorikoa</b>	<b>3</b>
1.1. Alardea: sarrera txiki bat	3
1.2. Gatazka: ikuspuntu historiko bat	4
1.3. Sustraietara: tradizioa ala genero sistema?	9
1.4. Hezkuntza: eraldaketarako tresna	15
<b>2. Diseinu metodologikoa</b>	<b>20</b>
<b>3. Ikerketaren fruituak</b>	<b>22</b>
3.1. Edo guztiok dantzatzen dugu, edo ez du inork dantzatzen: zer da besta?	22
3.2. Isiltasunaren kodea: gaiaren presentzia eza eskolan. Ikusle pasibo ala eragile aktibo?	24
3.3. Da boterea, boterea mantentzea: udalaren erantzunkizuna	27
3.4. Etxearen eta eskolaren arteko sinkronia falta: mezuek bat egiten ez dutenean	30
3.5. Zerbaitetarako gaude hemen: irakaslegoaren aldaketa eta hitz egitearen garrantzia	32
3.6. Ezin da eten haizea: erosotasuna, generoa eta erresistentzia	34
3.7. Gazteria bidea urratzen: Lehen Hezkuntzan dago gakoa	37
<b>4. Ondorioak</b>	<b>40</b>
<b>Bibliografia</b>	<b>43</b>
<b>Eranskina</b>	<b>45</b>
Elkarrizketaren gidioa	45

# Hitzaurrea

Hezkuntza tokian tokiko gatazka sozialei aurre egiteko balia daiteke. Bidasoan duela 25 urte sortu zen zauriak zabalik dirau, eta diziplina ugaritatik aztertu izanagatik (soziologia, antropologia, politika, historia...), hezkuntza alde batera utzi izan da. Ikerketa horiek biziki baliagarriak izan dira egoera ulertzeko, eta ezagutza horiek baliatu behar ditugu hainbeste aldarrikatzen dugun berdintasuna lortzeko.

Hezkuntzatik ez bada, nondik izango da? Hondarribin tabu itzela izan da Alardearen gaia urteetan zehar, baita eskolan ere. Askotan egin izan dizkiot gisa honetako galderak nire buruari: eskola duela 25 urte gatazka ikasleekin lantzen hasi izan balitz, non egongo ginatete orain? Zein izan da irakasleen papera? Eta hezkuntza sistemarena? Zer aldatu da azken bi hamarkadetan herriko eskolan? Zeintzuk dira hemendik aurrerako erronkak? Galdera horiei guztiei erantzuten lagundu nahi du lan honek.

Idatziaren xede nagusia da Hondarribiko eskola publikoan Alardearen harira piztutako gatazkari nola heldu zaion mahai gaineratzea. Helburu hori egikaritzen lagundu nahi dute ondorengo helburu espezifikoek:

- HE1.** Alardearen harira piztutako gatazkaren genero irakurketa egitea.
- HE2.** Eskolak eta (trans)feminismoak tokian tokiko gatazken ebazpenean izan dezakeen paperaren inguruan hausnartzea.
- HE3.** 90. hamarkadatik gaur egunera bitartean Hondarribiko eskoletan lan egin duten Alarde Parekidearen aldeko Lehen Hezkuntzako hezitzaileek eskolaren eta gatazkaren inguruan dituzten bizipenak eta ikuspegiak ezagutzea.

Lanaren egiturari dagokionez, marko teorikoa baliatu dut gatazkaren testuingurua azaltzeko: Hondarribiko Alardea zer den azaldu dut, gatazkaren hasiera eta garapena deskribatu ditut, eta hezkuntzak eta transfeminismoak azken urteetan egindako ekarpenak mahaigaineratu ditut, euren arteko elkar eraginak hobeto ulertu ahal izateko. Ostean, ikerketa burutzeko erabili dudan marko metodologikoa aurkeztu dut, teknikan eta laginean sakonduz. Ondoren, herriko lau hezitzaile feministen bizipen zein ikuspegiak jaso ditut, eskolan gatazka nola bizi izan den hobeto ulertzeko, baita euren ustez konponbidea zein den eta zein norabidetan goazen jasotzeko ere. Ondorioek ematen diote amaiera ikerketari, eta bibliografiarekin eta eranskin batekin itxi dut idatzia.

Lanari ikuspegi transfeminista bat txertatzea ezinbestekotzat jo dut. Egun ditugun ezagutzek sexu-genero sistemak eta gizarteko botere harremanak sakonago ulertzeko tresnak eskaintzen dizkigute. Ezabatze saiakeren aurrean, gorputz disidenteen, trans pertsonen eta emakumeen<sup>1</sup> presentzia aldarrikatzeak berebiziko garrantzia duelakoan, lan honetan ikerketa subjektu dira.

Hezitzailez eta erreferente feministaz inguratua hazteko zortea izan dut. Hezkuntzarekiko errespetuak eta berdintasunaren aldeko borroka grinak ekarri naute honaino. Ia hezitzaile eta sasi-hondarribitar bezala sumatu dudana hutsunea betetzea da nire asmoa GrAL honekin. Borroka honetan tinko jardun duten emakume\* guztien omenez, nire ekarpen txikia egitea gustatuko litzaidake. Lehen Hezkuntzako Graduan sartu nintzenetik argi nuen nire herriko gatazkaren eta eskolaren arteko zubiak aztertu nahi nituela, eta lau urteren ondoren horretarako aukera izan dut nire tutoreari esker.

Jakin badakit ikerketa honek ez duela herriko gatazka konponduko inondik inora ere. Besterik gabe, eredutzat ditudan emakume\* hondarribitarrei, haien artean miresten ditudan nire familiako emakumeei\* egin duten lan eskergea eskertu nahi diet GrAL honen bitartez, nire aletxo jarritz. Zuengatik eta zuentzako: Ama, amona, ahizpa, izeba, lehengusina.

---

<sup>1</sup> Emakume\* diodanean, gorputz feminizatuek mintzo naiz. Erregimen heterosexualek eta patriarkalak baztertzeko dituen gorputzetaz. Izan zis edo izan trans.

# 1. Marko teorikoa

## 1.1. Alardea: sarrera txiki bat

Hondarribiko Alardeaz hitz egin behar dudanez, historiari helduko diot lehenik eta behin. Arma desfile bat da<sup>2</sup>, 1639. urteaz geroztik ospatzen dena, Guadalupeko Ama Birjinari eskerrak emateko botoaren urteroko berriztapena egiteko asmoz. 1638ko irailaren 8an, bi hilabeteko setio latzaren ondoren, etsaiak amore eman izana ospatzen da (Marquez eta Kerexeta, 2005). Frantzia eta Espainia gerran zeuden, eta Frantziako tropak Euskal Herria mendean hartzeko ahaleginetan ari ziren. Irun, Lezo, Oiartzun, Errenteria eta Pasaia kontrolpean hartu zituzten, baita Hondarribia setiatu ere. Hirurogeita zortzigarren egunean, Hondarribiko herritarrek aurre egin zioten etsaiari Guadalupen, eta garaitu egin zuten. Marquez eta Kerexetaren (2005) hitzetan, 1638ko garaipenaren gogorapenak autoafirmazio zentzua du. Setio heroikoak gainbeheran zegoen hiri zaharraren pribilegioei eusteko balio izan zuen. Hiria ofizialki mugaren zaindaria zen, eta garaipen hark haize berria eman zion. Hala, urteen poderioz, esker oneko zina betetzeko prozesioa bertakoen nortasun-agiri bihurtu zen.

Ia lau mende igaro dira arma desfile hau sortu zenetik, eta garapena izan duela ukaezina da. Bilakaerari dagokionez, hasierako Alardea egungoarekin erkatzekotan, gauzak nabari aldatu dira. Marquez eta Kerexetaren (2005) aburuz, Alardea desfile folkloriko bilakatu da. Arantxa Urretabizkaia idazle eta Jaizkibealeko kide ohiaren hitzetan:

Hori da Hondarribiko Alardea, duela ia lau mende herriko jende armatuak egiten zuen desfilearen errepikapena, denborak eta gizarteak gaurkotua, itxuraldatua, folklore bihurtua. Beti ere patriarkatuaren arabera: gizonak protagonista eta emakumeak apaingarri, gizonezkoek uzten dieten tartetxoan. Kantinerak. (Urretabizkaia, 2018)

Nolatan dio hau Arantxa Urretabizkaia? Bada, Alardeak denetariko aldaketak jasan izan ditu urteek aurrera egin ahala: ordutegiak, musika, ibilibidea... Tinko mantendu den bakarrenetarikoa emakumeek\* parte hartzeko duten debekua izan da; kantineren figura da salbuespen bakarra. Gatazkan barneratu aurretik, eta lau mendeetan eman diren aldaketetan sakontzea ezinezkoa denez, egungo Alardea izanen dut mintzagai hurrengo lerroetan.

---

<sup>2</sup> "Alardea" berez desfilea bada ere, haren inguruan jai-giroko beste gertaera asko daude: kantineren hautaketak, entseguak, errebistak eta abar. (Marquez eta Kerexeta, 2005).

Alardea hatxeroek abiatzen dute, arrankadan. Konpainia berezia da, kantinerarik eta kapitainik ez duen konpainia bakarra da. Ondoren joaten dira musika banda eta danborrada, eta gero agertzen dira jenerala eta haren laguntzaileak, zaldi gainean, eta zalditeriako gainerako kideak. Horien ostean, infanteria konpainiek desfilatzen dute; auzoetakoak edo elkarteak izaten dira. Kapitaina joaten da martxaren buruan, txilibituek, danborrek eta eskopetariak jarraituta. Hondarribian, umeak joaten dira eskopetarien azken lerroetan, bost urtetik aurrera: kuberok dira. Artilleriak ixten ditu Alardeak. Hatxeroek izan ezik, konpainia guztiek dute kantinera bat: Alarde baztertzaleetan, emakume\*zko figura bakarra da, eta konpainiako gizonak aukeratzen dute (Asensio eta Iraola, 2019).

Egunaren egiturari dagokionez, irailaren 8an, goizez, konpainia bakoitzak kantineraren bila joan behar du bere etxera. Hondarribian, Gernikako Arbola lorategietan elkartzen dira konpainiak, eta jeneralak agindua ematen duenean, Alde Zaharrerantz abiatzen dira. Santa Maria atea igaro ondoren, Kale Nagusia igotzen dute, Arma plazaraino; elizaren alboan bandera jaso ostean, Gernikako Arbolarantz itzultzen dira. Azkenik Guadalupeko ermitara igotzen dira, botoa betetzera. Arratsaldeko desfileak luzeagoak izaten dira (Ibid.). Janzkerari dagokionez, Hondarribian konpainia bakoitzak bere uniforme du.

## 1.2. Gatazka: ikuspuntu historiko bat

Aurretiaz aipatu legez, emakume\*en presentzia kantinera postura mugatuta egon da mendeetan zehar. 1996an piztu zen gatazka Irunen zein Hondarribian. Guk bigarren honi helduko diogu. Hiru urte beranduago piztu izanagatik, gaia 1993an hasi zen lantzen, Emeki elkartearen eskutik. Urte horretan bertan egin zuen Emekik lehen eskaera ofiziala: Hondarribiko Alardeko Juntarekin biltzea galdegin zion Alfonso Oronoz alkateari. Konpainia guztietako kapitainei ere gutun bana bidali zieten, Alardean parte hartu nahi zutelako adierazteko. 1995eko abenduan erantzun zien juntak: aho batez ebatzi zuen “desegokia” zela emakume\*ek Alardean soldadu gisa parte hartzea. Bitartean, Emekik galdetegi bat luzatu zien herritarrei, emaitzei erreparatzeko ez ezik, etxeetan elkarrizketak piz zitezen (Ibid.).

Ildo beretik, Bidasoaldeko Emakumeak (BAE) plataforma sortu zen 1995ean, Irungo eta Hondarribiko emakumeak\* batuz. Hurrengo urtean plataformak desfile parekide bat eskatu zuen Irungo Udalean. Horretaz gain, ordenantzako bigarren artikulua moldatzea proposatu zuen, Alardean parte hartzea ukatu ezin izateko “arrazo, sexu edo erlijio arrazoiengatik”. Honako hau dio Txaro Arribasek, BAEko kideak: “Errespetuz egin genuen eskakizuna. Esan genuen gizarteek eboluzionatu egiten dutela, ohiturek ere bai, eta



emakumeek sakonki maite zutela herriko jaia... EAJ, PSE-EE eta PP kontra agertu ziren". Bat dator Rosa Sanchez (Irungo udaleko EBko zinegotzi ohia): "Lan handia egin zen azalpenak emateko, kontzientziazteko, argudiatzeko. Baina norbaitek entzun nahi ez duenean, ez dago esateko deus. Ukazioa nagusitu zen, argudiorik gabea". Gatazka piztear zela, honako hau oroitzen du Mertxe Tranchek (Alarde parekidearen sustatzailea): "Ez genuen oraindik urratsik egin eta herri osoa gainean genuen jada... Erreakzioak eraman gintuen posizioa hartzera, ordurako ondorioak jasaten ari baikinen" (Ibid.:15). Momentu horretan, Irungo zein Hondarribiko emakumeek\* erabaki zuten 1996ko Alardeetan aterako zirela.

Ekainean Irunen San Martzialetan emakume\*ak atera ziren, eta irailean Hondarribikoen txanda iritsi zen. Latentzia egoeran zegoen jai egun horren bezperan, herriko Kale Nagusiko soto batean gorde ziren 26 emakume\*. Klandestinitatean jardun behar izan zuten, aurreneko egunetan jantziak eta eskopetak isil-gordeka eramanez sотора, alfonbren artean gordeta batik bat. Heldu zen Alardea Kale Nagusira, Kosta konpainia igaro ostean aterako zen konpainia berria. Parekidetasunaren aldeko gizon konplize batzuk ziren Kosta konpainian, emakume\* batzuen nebak, besteak beste. Hau dio Alkainek, konpainiako lehen kapitainak:

Atera ginen, eta bost pausu ere ez genituen eman. Izugarria izan zen: kolpeak, bultzadak; beste konpainia batzuetatik etorri ziren gu jipoitzera. Berrito sotoan sarrarazi gintuzten. Gutako batzuk ez ziren handik atera ere egin. Barruan geratu ginen; kanpoan kolpeak eta oihuak entzuten ziren. (Ibid.:18)

Honako hau oroitzen du Urretabizkaiak: "Espero genuen sartuko ginela, utziko zigutela, baina ez: lehenengo urtean, gizonak debekatu ziguten Alardea" (Ibid.:18). Horren guztiaren aurrean, alkatea ez zen mugitu ere egin. Herritar askok eraso gisara hartu zuten emakumeen\* ekintza: herritarren borondatea ez errespetatzea egotzi zieten, aldarrikapen politiko bat festara eramanez jaieguna zapuztu nahi izatea, eta erritualari begirunerik ez agertzea. Orduan eman zen haustura herrian, 26 andre haien eta lagundu zietenen aurka. Hurrengo egunetan, Alarde parekidearen aldeko pertsonen izenak, helbideak, telefonoak eta lanbideak biltzen zituzten paskinak agertu ziren herrian zehar. Mezuak jasotzen zituzten etxe zein lantokietan: irainak, isekak, mespretxuak... Gorroto pertsonalek elikatuta, hamar urte inguru iraungo zuen jazarpen giro itogarria piztu zen: harremanak haustea, agurrak ukatzea, irainak, mehatxuak eta autoko gurrupilak zulatzea, besteak beste, eguneroko ogi bilakatu ziren (Ibid.).

Hilabeteek aurrera egin ahala, emakumeen\* parte hartzearen aurkakoak (tradizionalista<sup>3</sup> deituko diet Alarde Tradizionalaren defendatzaileei) “Alardearen defentsarako” kolektiboak sortzen hasi ziren. Gatazka gogorra aurreikusten zuten, eta talde feministen arteko elkartasun handia sumatzen zuten. Beraien egitasmoaren parte ziren propaganda osatzea, hedabideei boikota egitea, errentagarritasun politikoa lortzea eta eskoletan kanpaina bat abiatzea. Baina beste planteamendu bat izan zen Alardearen norabidea aldatu zuena: Alardea pribatizatzea. Horrela, autofinantzaketaren bitartez, erakunde publikoen mendeko izateari utziko zion, eta zuzenbide publikoaren eraginpetik aterako zen.

Urri horretan bertan aurkeztu zuten ofizialki Betiko Alardearen Aldekoak taldea. Hondarribiko Alardeko buruzagiek Alardea pribatizatzeko lehen urratsak eman zituzten: Alarde Fundazioa sortu zuten, eta erakunde publikoekiko lotura hausteko borondatea erakutsi zuten. Bitartean, 1997ko abuztuan Jaizkibel konpainia mistoa sortu zen Hondarribian, 52 pertsonak osatuta, ez bakarrik gizonek. Ordezkariek udalari eskatu zioten konpainia onartzeko, baina erantzuna ezezkoa izan zen. 1997ko irailaren 8an, beste konpainiek bezalaxe, Jaizkibelek ere kantinera etxean jaso zuen, eta Gernikako Arbolarantz abiatu zen, gainerako konpainiekin batzeko asmoz. Ez zuten iristerik izan: 200 bat emakumek\* bidea itxi zieten, tapoi bat eginez. Andre horiek protagonismo berezia hartu zuten gatazkan, haiek ziren emakumeek\* soldadu gisa parte hartzearen aurka zeudenen bozeramaile, Alardearen “esentziaren” defendatzaile (Ibid.).

1998aren hasieran Irun eta Hondarribiko Alardeak pribatizatzeko asmoek abiadura hartu zuten. EAEko Auzitegi Nagusiak emakumeen\* aldeko epaia eman zuen. Hondarribiko alkatearen kontra jo zuen, aurreko urtean ez zuelako emakumeen\* parte hartzea baimendu, Espainiako Konstituzioko laugarren artikulua urratuz: sexuagatiko diskriminazioa. Alkateak (EAJ), Alarde Fundazioari men egin zion eta errekurtsioa jarri zuen udalaren izenean, bat egiten baitzuen *tradizionalisten* tesiarekin. Alardea pribatizatzea ere babestu egin zuen. Ordurako Eusko Jaurlaritzak uko egin zion Alarde Fundazioa EAEko fundazioen erregistroan onartzeari. Ondorioz, Nafarroan erregistratu zen (Ibid.).

Gatazkaren lehen bi urteetan emandako tirabiren ostean, Hondarribian konpainia parekide baten alde egin zen, Irunen ez bezala, horren bidez Alardean sartu ahal izango zirelakoan. Baina Jaizkibelek urteak itxaron behar izan zituen herriaren erdigunean atera ahal izateko. “Milimetroka lortu dugu aurrera egitea; kaleko metro bakoitza irabazi dugu”, dio

---

<sup>3</sup> Talde honen iritziz Alardea aldaezina da emakume\*aren partaidetzari dagokionez. Talde hau izendatzeko askotan zaila izaten da izen egokirik bilatzea (Marquez eta Kerexeta, 2005).

Ixabel Alkainek. 1998ko irailaren 8an, aldeko epai bat atera arren, Alardetik kanpo geratu zen Jaizkibel berriro. Baina desfilatu egin zuen, baratze artean ezkutuka iritsi ziren gainontzeko konpainiak elkartzen diren tokira. Kontrakoen aldetik berriz jaso zituzten bultzadak, kolpeak eta irainak. Konpainia parekideak ezin izan zuen gainerakoekin bat egin, ertzainek ez zieten pasatzen utzi. Are bortitzagoa izan zen 1999koa: ertzaintzak kolpeka mugiarazi zituen Jaizkibeleko kide zein jarraitzaileak. Eserialdi baten ostean polizia oldartu zen, eta borroka handia sortu zen, zauritu asko utziz. Jaurlaritzak ertzaintzak izandako jarduna baliogabetu zuen, berdintasun eskubidea urratzeagatik (Ibid.).

Zetozen urteak bereziki liskartsuak izan ziren, entseguetan baita ere. Eskola eta adingabekoak azaltzen dira lehen aldiz hemen. Eskola zen haien babesleku, bertan burutzen baitzituzten entseguak. Haurrak bidaltzen zizkieten, iraintzeko, harriak eta arrautzak botatzeko... 2000. urtean konpainia birritan geratu zen eskolatik atera ezinik, ehunka pertsonaz inguratuta, goizaldera arte. Kazetariak ere erasoak jaso zituzten, eta agerraldi batean Jaizkibelek zera esan zuen: “herriko indarkeria giroa jasanezina da”. Alarde eguna iritsi zen, eta Herrizaingo Sailak berretsi zuen Jaizkibel desfilean sartuko zela hatxeroen aurrean. Honi erantzuteko asmoz, emakume\* tradizionalistak kalean eseri ziren, eta bidea itxi zioten konpainia parekideari. Jaizkibel ezin izan zen desfilean sartu. 2001 eta 2002 urteetako Alarde egunetan, desfile sinbolikoak egitera mugatu ziren, ertzainak ezarritako mugetan. Frustrazio handiko urteak izan ziren, neketsuak. Hala dio Ixabel Alkainek, Jaizkibeleko lehen kapitainak:

Ez da oso ondo ulertzen kolpe bat ematen dizutenean beste kolpe batekin ez erantzutea. Baina nire obsesio nagusia proiektua zen, eta beti izan nuen oso argi gure borroka indarkeriarik gabea zela: lehen kolpea eman orduko desagerraraziko gintuzten. Une zailak izan ziren, baina iritzi desberdina zutenek ere hor jarraitu zuten. (Ibid.:40)

Egoera zaila zen, eta auzitegiek ez zioten mesede egin Jaizkibeli. Babesa eman zieten Alarde baztertzailerei: ekitaldi pribatuak izanda, biltzeko eskubidea gailendu zen. Emakumeak\* ez onartzeko aukera onetsi zuen epaiak. Sententzia erabakigarria izan zen: betikoen jardunari ez ezik, haien argudioei ere zilegitasuna eman zien. 2003. urtean Jaizkibelek estrategia aldatu zuen, Alardean sartzeari uko eginez. Manifestazio itxuran desfilatu zuen, gizonen martxa amaitzean, “Alarde publiko eta ez-diskriminatzaile baten alde. Emakumeak Alardean” lelopean. Ibilbidearen parte bat egin zuten lehen aldiz, ertzaintzaz inguratuta, 80 lagunek. Txistuak eta irainak ez ziren falta izan; horrelakoak entzutea arrunta zen: “hemen kaka usaina dago”, “que os violen”, “puta, bigotuda, kanpotarra, feminista,

menopáusica, lesbiana...”. Inflexio puntu bat izan zen: hurrengo urtean kide kopurua bikoiztu egin zen, eta haurrak sartu ziren, kubero gisa.

2005ean EAeko Berdintasun Legea onartzearekin batera, gauzak aldatu egin ziren. Herrizaingo Sailak erabaki zuen Jaizkibel goizeko 08:30ean aterako zela, Alardea baino ordu erdi lehenago, eta lehen aldiz ibilbide osoa egingo zuela, goizez zein arratsalde. Jaizkibelek aurrera pausuak eman ahala, tradizionalistek konpainia parekidea ikusezin bilakatzeko tresna berria asmatu zuten: plastiko beltzak. Irailaren 8an, Jaizkibel kale nagusira heltzean, espaloi bakoitzean bi metroko harresi beltz bat topatu zuen, baita txistuak, irainak, sirena hotsak eta horrelako mezuak ere: "Ez gara zuek ikustera etorri. Zuekin, inoiz ez". Horretaz gain, gainontzeko konpainien ondotik pasatzean, herriko 4000 gizonak bizkarra eman zieten (Ibid.).

Irungo giroa eta tentsioa baretu izanagatik, Hondarribiko desfilea gatazkatsuagoa izan da 2005etik aurrera, goizez zein arratsalde: plastiko beltzak, irainak, txistuak... Musika entzun ezinik desfilatu du Jaizkibelek urteetan. Hondarribiko Emakumeak taldeak (tradizionalistak) adierazpen askatasun gisa defendatzen zituzten euren ekintzak, Hondarribiko Udalaren babesarekin, baita Aitor Kerejeta (EAJ) alkatearenarekin ere, jendeak ikusi nahi duenaren kontrako manifestaziotzat baitzuen konpainia parekidea. Hau dio Alazne Beltran de Lubiano Euskal Herriko Bilgune Feministako kideak:

Herria zauritua dago. Zaurituta dagoen herri batek soilik normalizatu dezake plastiko beltza ateratzea eta bere ondokoa iraindu, ukatu eta hari erasotzea. Zaurituta dagoen herri batek soilik onar dezake emakumeen eskubiderik eza, lehenengo eta bigarren mailako herritarrak ezarriz. Botere eta pribilegioa edozein preziotan mantendu nahi duenak soilik eman diezaioke bizkarra eskubide urraketari, konponbiderako elkarrizketa zintzo eta eraikitzaile bati atea itxita. (Alazne Beltran de Lubiano, 2019)

Denborak bere lana egin du, baita Jaizkibelek ere. Urteak pasata, 2013an Jaurlaritzako Segurtasun Sailak jarrera aldatu zuen: "Elkarrekin bizitzeko eta tolerantzarako izateko borondatea" galdegin zien bi Alardeetako antolatzaileei. Alarde baztertzaileri plastiko beltzak ez ateratzea eskatu zitzaion, eta desfilea manifestazio itxuran ez egiteko konpainia parekideari. Irailaren 8an Jaizkibel pankartarik gabe atera zen, baina *betikoek* ez zituzten plastiko beltzak kendu; altuera jaistera mugatu ziren. Polizia plastiko beltzak zaintzen aritu zen. Urteetako eskakizun hau oroitzen du Arantxa Urretabizkaiak: "Esaten genien ez egoteko guri begira, baizik eta espaloietara: hor dago arriskua". Aurrerapausuekin

jarraituz, 2014tik aurrera Kale Nagusia bere musika entzunez igaro du Jaizkibelek, eta 2017an ia ertzainik gabe egin zuten kalearen zati hori.

Babesa nabarmen handiagoa da, orain 600 lagun inguruk osatzen dute Jaizkibel konpainia. Handitzen jarraitzen duela uste du Oihana Etxebarrieta Jaizkibel Konpainiako Kapitainak: "...argi dago zein den etorkizuna: Jaizkibel handitzen ari da, gaztetzen, eta emakumeen\* boteretzea ikaragarria da konpainiaren barruan". Bizikidetzaren berreskuratzen ari dira herrian: irainik ez dago ia kaleetan, eta erasorik ere ez. Jai egunetara mugatzen dira tentsio-uneak. Hala eta guztiz ere, hau normala ez dena normalizatzea izan da. Egoera nabari hobetu den arren, badago lan handia egiteke (Asensio eta Iraola, 2019).

### 1.3. Sustraietara: tradizioa ala genero sistema?

Zein da ba gatazka honen jatorria? Tradizioaren haustura eman izana akaso? Edo genero sistemak astindu izana? Hondarribiko Emakumeak taldeak (Alarde Tradizionalaren alde dauden emakumeak) dio euren borrokaren helburua dela Alardea ezaugarri historiko, erlijioso eta folkloriko batzuekin mantentzea. Aurretiaz aipatu lez, askotarikoak izan dira Alardeak jasandako eraldaketak: ibilbidea, musika, antolakuntza... Nolatan ez da aldaketa garrantzitsu bat herritik kanpoko gizonak konpainia propio bat izatea (gehienbat Madrilgo gizonak, udara Hondarribian ematen dutenak), eta bai herriko emakumeek\* dagokien konpainian parte hartzea? Hondarribiko Emakumeak taldekoek ez dute partekatzen emakumeek\* soldadu gisa ateratzearen aldarrikapena, eta honako hau diote: "...asko gara, Alardea ospatzeko eran bereizkerarik ez dagoela uste dugunak; bereizketarik somatuko bagenu, gu izango ginatke lehendabizikoak erronka hori gure gain hartzen" (Hondarribiko Emakumeak, 2021).

Duela 20 urte inguru, emakumezkoen\* ahalduntzea egonkortzen ari zen horretan, eta jaietan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzearekin batera, herritarren gehiengoa aurka agertu zen, tradizioa argudio nagusi izanik. Alarde parekidearen arrakastak Alarde tradizionalarekiko, zapalkuntza-eredu askoren deslegitimizazioa suposatuko luke, gure gaur egungo gizartearen eskeletoa astinduz, hala dio Maite Zaiteguik. Hortaz, badirudi gatazkaren arrazoia gizonak ez diren horiekiko zapalkuntza bere horretan mantentzea dela.

Festak politikoak dira. Eduki sinbolikoa duten jendarte eta kultur adierazpenak dira, errealitatearen adierazleak. Bizitzaren erdigunean daude, jendartearen balioak, nortasunak, ideologiak eta egiturak birsortzen dituztelako. Jaiak jendartean dauden

gatazkak, zapalkuntzak eta diskriminazioak adierazten dituzte, oro har, hegemonikoak diren genero eredu eta heteroaraua indartuz. (Beltran de Lubiano eta Zufia, 2018)

Jaiak jendarteko errealtatea adierazten du, eta Hondarribiko Alardea horren adibide aparta da. Gizonak subjektu dira jaietan, ospakizunaren nukleo betiere. Emakumeak\*, aldiz, etxean bazkaria prestatzen, jantziak plantxatzen eta gizonak txalotzen egon ohi dira. 20 bat emakume\* gaztek baino ez dute desfilean parte hartzen, kantinerek, eta euren egitekoa itxura fisikoari oso loturik dago. Islada ona ere bada gatazka, gizartearen aldaketekin batera, Alardean haustura eman baitzen. Emakumeek\*, ahaldundu ahala, jaietan presentzia handiagoa izatea aldarrikatu zuten, eta herriaren zati handi bat kontra agertu zen, parte hartzea ukatuz.

Jai ereduak herritarren parte-hartze mailarekin neur liteke. Parte-hartze integral eta erreala batek, jai, kontsumo, errentagarritasun eta aisialdi ereduaren inguruko errotiko birplanteamendua dakar, gaur egungo ereduak askok ez baitugu lekurik. Jaietan parte izateak hauxe esan nahi du: prozesua diseinatzeko erabakimena izatea, ekarpena egiteko besteek zein norberak bere buruari autoritatea ematea, komunitate baten parte sentitzeak eskaintzen duen autoestimua izatea, ikusgarri izatea bakoitzak aukeratzeko duen moduan (eta ez inposatzen diren estereotipoen arabera), lan-banaketa parekoa izatea eta hainbat lan kolektibizatzea, askotariko espazioetan seguru egoteko eskubidea bermatzea eta gozatzeko aukera izatea. Eta noski, jaietan parte-hartzea ez da soilik plazan edo kalean ematen; bertan egon ahal izateko, etxe nahiz sukaldeetan egiten diren lanak ere funtsezkoak baitira. (Beltran de Lubiano eta Zufia, 2018)

Gatazkak sexu-genero sistemen arauen hausturan du bere iturria. Sakondu dezagun, beraz, kontzeptuotan. Pentsamendu feminista 60. hamarkadan loratu izanagatik, genero kontzeptuaren beharra ez zen hurrengo hamarkadara arte sortu, eta hau 80. hamarkadan garatuz joan zen. Helburu nagusia honako hau zen: gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeriak eta desparekotasunak azalduko zituen erreminta bat sortzea, horiek konstruktiboki sozial legez ezaugarrituko zituen, unibertsalistentzat, esentzialismo kulturaletik eta erredukzionismo biologikotik aldenduz. Generoak prozesu dinamiko, historiko eta aldakor bati egiten dio erreferentzia, zeinetan gizarte edo sistema kultural batean gizon edo emakume izateak esanahi bat hartzen duen. Gizarte zehatz baten parte diren horien atributu eta haiengandik espero diren jarreretan oinarritzen da definizio hau, kategoria biofisiologiko desberdinetatik abiatuz. Hori horrela izanik, botere harremanak sostengatzen dituen egitura hierarkizatu bat mantentzeko jarrera espezifikokoak egokitzen zaizkio genero bakoitzari (Bullen, 2017). Generoa feminitatearen, maskulinitatearen, androginotasunaren edo bestelako kategoria soziobiologikoen eraikuntza da, gizarte bakoitzeko rola, estereotipoak,

botere harremanak eta ezarritako estratifikazioa aztertzea ahalbideratzen duena (Casares, 2006).

Genero sistemen baitan, gizonek menperatzen dituzten botere harremanetatik datorkigu patriarkatu kontzeptua. Margaret Bullen antropologo feministaren aburuz, patriarkatua sistema sozial bat da, zeinetan gizonezkoek botere posizioak okupatzen dituzten, eta autoritatez jarduten duten emakumeekiko, haurrekiko eta jabetzarekiko. Gizonezkoen papera irudi autoritario moduan zentrala da gizartearen antolakuntzan, eta bere botere eta pribilegioak instituzionalizatuta daude, baita emakumezkoen\* menpekotasuna ere. Instituzionalizazio hori agerikoa da Alardearen ibilbide historikoan, horren adibide dira udaletako gizonezkoen nagusitasuna, baita Alardea antolatu ohi duen Alardearen Juntakoa ere.

Genero eta sexu kontzeptuak ez dira gauza bera. Sexu biologikoari erreferentzia egiten zaionean, desberdintasun anatomikoei egiten zaie erreferentzia: ezaugarri morfologikoak, sexu-organoak, ezaugarri hormonal eta kromosomikoak... Bestetik, genero soziala daukagu, sexu biologikotik abiatuta eraikitzen diren feminitate eta maskulinitateen berri ematen duena (Bullen, 2017). Ildo horretan, honako hau defendatu zuen 1999an Judith Butler idazle eta filosofo feministak:

Generoa bada gorputz sexudunak hartzen dituen esangura kulturalen bilduma, ezin daiteke inolaz ere esan genero batetik eratorria denik. Bere mutur logikora eramanda, sexu/genero bereizketak aditzera ematen du ez dagoela inolako lerro jarraiturik gorputz sexudunen eta kulturalki eraikitako generoen artean... Areago, nahiz eta morfologiari eta osaerari dagokienez bi sexu baino ez egon itxura batean (hori ere ezbaian jarriko dugu), ez dago arrazoirik pentsatzeko generoak ere bi izan behar direnik. Genero sistema bitar bat suposatzeak siniste inplizitu hau dauka atzean: generoa erlazio mimetikoan dagoela sexuarekin, eta generoak ispilatu egiten duela sexua, edo, bestela, sexuak zedarrizten duela generoa (...). (Butler, 1999:56)

Gure sistema kulturean dikotomiak dira nagusi. Hau da, objektu edo kontzeptu bat (sexua, generoa, sexualitatea) bitan zatitzea, bata bestearen kontrakotzat joz eta horietako bat gailenduz (arra-emea, gizona-emakumea, heterosexuala-homosexuala). Arestian aipatutako sistema kulturean bi kategoria daude bai sexuan eta bai generoan. Gainera bada, oraindik orain, bi kontzeptuak berdintzat dituenik: arra=gizona, emea=emakumea. Alarde Tradizionalaren kasuan dikotomia hau erreproduzitzen da, zeinetan gizona (edo arra) subjektu aktiboa, protagonista eta jaiaren erdigunea den. Aitzitik, emakumeak (edo emeak)

sukaldean geratzen dira, gizonen jantziak prestatzen dituzte, edota Alardean gizonak txalotzen dituzte, espaloitik. Ezin dugu ahaztu emakume\* bakarria dagoela konpainia tradizional bakoitzeko, baina noski, betiere konpainiako gizonak hautatua. Honako hau esan zuen 1993an Alardeko jeneralak: “Jakin beharko zenuke emakumeen ohorerik handiena dela bere senarrek ondoen lisatutako alkandora eramatea Alardean...” (Izagirre, 2021:42).

2022. urtean oraindik badira Alarde ez misto (eta pribatu) bat defendatzen duten emakumeak\*, irailaren 7ko gaua kale nagusian ematen dutenak, 8an lehen ilaran egoteko, plastiko beltz, txistu eta irainez bustiz Jaizkibealeko kideak. Zuzen zegoen Simone de Beauvoir: “zapaltzailea ez litzateke hain indartsua izango, zapalduen artean konplizerik ez balu” (Askatasuna, 2019). Bestalde, konpainia parekideko partaideei esandako irainek (“hemen kaka usaina dago”, “que os violen”, “puta”, “bigotuda”, “kanpotarra”, “feminista”, “menopáusica”, “lesbiana”,...), arazoaren muina azaleratzen dute: genero sistema dikotomikoak indartzen dituen botere harremanak astindu ditu Alarde parekideak, eta ez tradizio huts bat.

Borroka subjektuari dagokionez, “...teoria feministak beharrezkotzat jo du emakumeak\* erabat edo egoki ordezkaturiko dituen hizkuntza bat garatzea, emakumeen\* ikusgaitasun politikoa sustatzeko... Azken urteotan, emakume\* subjektua bera ez da gehiago iraunkortzat edo finkotzat jotzen. Honen harira, Butlerrek (2019) dio subjektutzat onartzen denari bakarrik esleitzen zaiola ordezkartza eta errepresentazioa. Generoari lotuta honako hau gehitzen du:

Generoa ez delako beti modu koherentean edo modu beti berdinean eratzen testuinguru historiko guztietan, eta generoa gurutzatzen delako diskurtsiboki eratutako beste identitate modalitate batzuekin, arraza, klase, etnia, sexu eta eskualdeei dagozkienekin. (Ibid.:99)

Generoan oinarrituz, borroka subjektua emakumeak\* dira Alarde Parekidearen kasuan. Subjektu horrek jasaten duen zapalkuntza gainditzea da helburua. Horretarako, ezinbestekoa da emakumeei\* subjektu izaera aitortzea, izena duenak izana baitu. Emakumeen\* subjektu izaeraz hitz egiteak, agentziaz hitz egitea dakar. Agentzia boterearen nozioaren inguruan egiten den hausnarketaren fruitua da, zeinetan boterea ez den beti negatibo edo errepresibo, dimentsio produktibo bat ere baitu bere baitan. Subjektuei boterea aitortzeak, biktima posizioa betikitzea ekidin dezake. Azkenik, agentziaren harira Butlerrek (2014) esandakoak modu honetan interpretatzen ditu Perez Pons-ek (2020):



Menderakuntza-mekanismo horretan ez da zapaltzaile-biktima binomioa soilik egituratuko. Izan ere, zapaldua egoteak ez du biktima identitatea zertan ekarri, eta ez du ezta baztertzeko agente izatea. Zapaldua egoteak zaugarritasun egoera batean egotea esan nahi du, eta ondorioz, biolentziak jasotzeko probabilitate altuak izatea. Zaugarritasun horren gaineko kontzientziak ahalbidetuko du gorputz zapalduak erresistentziarako zein gaitasun dituen aztertzea eta egituratzea, edo gauza bera dena, immobilismora bideratuta dagoen “biktima” kategoria horretatik ihes egitea. Beraz, zaugarritasunaren mobilizazioak egingo du gorputz zapaldua agente baina erresistentzia hori ez dute gorputz guztiek era berean bizi. (Perez Pons, 2020: 20)

Jaizkibel agentzia gauzatzearen adibide argia da. Zapaldua izanagatik, eta biolentziak pairatu izanagatik, kontzientzia hartu da emakumezkoen\* zaugarritasunarekiko, eta erresistentziarako gaitasunak antolatu ditu, biktima kategoriatik aldenduz. Hondarribiko kasuaz gain, aipatzekoak dira baita ere Euskal Herrian, azken hamarkadetan, emakumeek\* herriz herri eskuratu dituzten espazioak jai giroan: Lezo, Lesaka, Zaldibar, Lekeitio, Gasteiz... Jaia gizarteko errealitatearen isla denez gero, azken urteotako borrokaren fruituak bertan ere ikusgai dira.

Feminismoaren subjektuaren eztabaidan, bada korrante bat, transfeminismoa, arazo zaharren inguruko ikuspegi berri bat ematen duena. Josebe Iturriozek, Euskal Herriko aktibista transfeministak, hala teorizatzen du:

Transfeminismoaren etimologia edo transfeminismoaren atzean dagoena queer hitza da: ingelesez maritxua, marikoa, arraroa, gorputz ez-normalei botatzen zaien iraina. Queer mugimenduaren edo transfeminismoaren oinarrian hainbat subjektu daude, horien artean maritxuak, lesbianak, transexualak, transgeneroak, trabestiak,... Simone de Beauvoirrek badu oso esaldi famatua: emakumea ez dela emakume jaiotzen baizik eta emakume egin egiten dela. Ez da emakume jaiotzen, emakume izatera iristen da, heziketak eta gizarteak sortu edo eraikitzen duten zerbait da emakumea. Simone de Beauvoirrek pentsatzen zuen bazegoela gorputz biologiko bat eta gorputz biologikoaren gainean eraikitzen dela emakume hori. Zentzu horretan Monique Wittig aktibista lesbianak “Pentsamendu heterosexuala” liburua idatzi zuenean, esaldi probokatzailera bota zuen: “Lesbiana bat ez da emakume bat”. Lesbiana bat ez bada gizon batekin ezkontzen, ez baditu bere umeak erditzen, ez badu hori guztia egiten ez da emakume bat, horra hor Wittigek adierazi nahi zuena. (Iturrioz, 2015)

Transfeminismoaren eta trans subjektuen auzia ez da nagusia izan Hondarribian azken hamarkadetan eman den gatazkan, baina arazo zahar horren inguruko ikuspegi berri bat eskaintzen digu. Arestian aipatu lez, menderakuntza sistema dikotomikoak bi ertz behar ditu,

zuria eta beltza, gizona eta emakumea. Zer gertatzen da hesi horietatik haratago dagoenarekin? Gizarteak berak sortutako genero-sistema da botere harremanak finkatzen dituen, baita “emakumeak” eta “gizonak” egiten dituen ere. Alardearen gatazka modu binario eta dikotomiko batean planteatu zen 90. hamarkadan, baina ikuspegi transfeministak gako berriak suposa ditzake datozen urteei begira, konponbideari begira. Emakumeak soldadu gisa ateratzeko eskubidea borrokatu da urteetan zehar, baina zer gertatuko litzateke gizonezko bat kantinera gisa aterako balitz, Donostian 2022ko haurren danborradan gertatu berri den bezala? Edota gizon eta emakume kategoriatik haratago dauden identitateak aitortuko balitu Alardeak?

Generoarekin amaitzeko, performatibitateari helduko diot, Alardearekin loturarik antzematen baitiot:

[Butlerrek, performatibitatearen teoria aurkeztean] Identitatea errepikapenaren eta bazterketaren bitartez nola eraikitzen eta deseraikitzen den ulertzeko giltzak eman zizkigun. Haren ustez, subjektuak genero rola errepikatzen dituen heinean, beste batzuk baztertzeko dituen, generoa izanik praktika horren produktua. (Perez Pons, 2020)

Generoa, munduan “egoteko” modu bat litzateke, eta ez “izateko” modu bat, eta ikuspegi horrek esperientzia desesentzializatzen laguntzen digu:

Generoa “egoteko” dugun modu bezala eta ez “garen” hori bezala aurkeztuz, momentu oro “egiten” dugunak identitatea eratzen digula esaten ari gara. Horrek gakoak ematen dizkigu “garen” horren atzean dagoen esentzialismoa desnaturalizatzeko. Izan ere, “izan” horrek aldaketarako aukerak eragozten ditu, alde aurretiko egi baten existentzia ezkutatzeko baitu bere erroan; horren arabera, sexua eta sexualitatea finkoak lirateke, biologikoak, norberak aldatu ezinezko “izateko” formak. (Ibid., 2020).

Alardea ez al da generoa egiten duen performance bat? Batetik, Alarde militar baten errepresentazio bat da, eta horri genero performatibitatea batzen zaio. Alardearen identitatea eraikitzerakoan, zein elementu errepresentatu eta zer ez hautatu da: janzkera, ibilkera, kargu militarrek, jerarkia... Gizonek zein emakumeek\* zer erreproduzitu behar duten argi dago, baita egin ezin den hori ere. Pentsaezina litzateke askorentzat gizonezko eta emakumezko kategorietatik at dagoen subjektu batek bere lekua izatea Alardearen barruan, edota gizonezko bat kantinera izatea. Performatibitateak daukan izaera produktiboak bere baitan dakar potentzial eraldatzailea. Hezkuntzak eta eskolak ere badaukate eraldaketarako potentziala. Non erakusten zaie umeei generoa performatzen? Non prestatzen dira gazteak

gaur egungo gizartean jarduteko? Non legoke gatazka honen konponbidearen oinarria? Eskolan.

## 1.4. Hezkuntza: eraldaketarako tresna

Askotan eskola eta hezkuntza gizarte eraldaketarako erreminta magikotzat hartzen dira, eta euren eragina ukazina den arren, gizartearekiko kohesioa ezinbestekoa da. Aipatu dudan sistema kultural patriarkal eta hierarkizatuan bezala, eskolan ere botere harreman horiek erreproduzitzen, eta areago, transmititzen dira. Diskriminazioz josita daude gure gizartea osatzen dituzten mantuak: hizkuntza, keinuak, ohiturak, harremanak... (Subirats eta Tome, 2007). Eskolan irakasten diren eredu kulturalak eraldatzeko premia azpimarratzen du Marina Subirats soziologoak. Gaur egungo gizartea inoiz baino azkarrago aldatzen ari dela dio, eta horrekin batera aldatu beharko litzatekeela hezkuntza. Argi dago ez dela bide erraza, lineala, sinplea edota azkarra. Hondarribiko umeek Alardean parte hartzen dute, konpainiaren atzean kubero bezala, tradizionalen mutikoek, eta parekidean nahi duenak.

Etxeaz gain, eskola ere feminitatearen eta maskulinitatearen eraikuntzaren motore izan da luzaroan, betiere, sistema homogeneizatzaileari mesede eginez, mendekotasun toxikoak eta botere harremanak elikatuz. Eider Salegi irakasleak aipatzen du gorputzak toki gutxi hartzen duela eskolan, alde kognitiboari garrantzi handiagoa ematen baitzaio. Bestalde, pertsonak, eta kasu honetan ikasleak, izate global bezala definitzen ditu: ezin dira burua eta gorputza banandu. Hondarribiko eskolak gaia lantzeko eta eraldaketa eragiteko aukera dauka, eta eskolan zein eskolaz kanpo ematen diren gatazka eta desberdinkeriak leuntzeko. (Garcia-Ildiakez, 2018:3)

Eskolatik eragiteari dagokionez, aipatzekoa da, aurrekari bezala, Irungo Alardearen harira 2017an Berritzeguneak argitaratu zuen Proposamen Didaktikoa, LH4-ra zuzendua. Proposamen horren xede nagusia Irungo eskoletan gaia aztertzea da, eta ikasleei gaiaren inguruko hausnarketa egiteko aukera ematea. Heziberri 2020ko Marko Pedagogikoan kokatuta dago, eta elkarbizitzarako kompetentzian oinarritzen da. Lau osagai planteatzen dira Proposamen Didaktiko horretan, gako izan daitezkeenak gatazkaren konponbideari begira, hezkuntza eraldaketa sozialerako tresnatzat badugu:

- Norberaren eta besteren nahiak asebetze daitezzen uztartzea komunikazioetan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.

- Taldean ikastea eta lan egitea, nork bere ardurak onartuz eta helburu komuneko lanetan lankidetzan arituz, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuta.
- Norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratortzen diren arauak betetzea.
- Gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.

(Berritzegunea, 2017:15)

Duela ez hainbeste urte emakumezkoek\* ez zeukaten hezkuntza ofizialerako eskubiderik, baina borrokarekin eskuratu zuten; hori bai, eskola ez mistoetan, sistema bitar eta dikotomikoaren adierazle gisa. Zailtasunak zailtasun, XX. mendean zehar herrialde askotan hezkuntza eredu mistoa ezarri zen. Hala eta guztiz ere, eskola mistoa izateak ez du esan nahi parekidea denik. Sistema kulturala ez denez aldatu, eskolak mesede egiten jarraitzen die mutikoen beharrei eta euren protagonismoari. Neskei\* sumisioa, ikusezintasuna eta bigarren planoan inposatzen zaizkie, modu zuzen edo zeharkakoan. Testuliburuak, curriculumak, irakaslegoaren hierarkizazioa eta hizkuntza eskolaren baitako desberdinkerien adierazle dira:

- Testuliburuak. “Ikerketek erakusten dute genero aurreiritzi eta estereotipoak mundu osoko testuliburuetan errepikatzen direla” (Iantzi-Goienetxe, 2017). Horrek nesken\* bizi, ikasketa eta lan proiektuak baldintzatzen ditu.
- Irakasleen hierarkizazioa. “Hezkuntzaren esparruan, bizitza ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalaren gainerako esparru gehienetan bezalaxe, desberdintasunak daude emakumeen eta gizonen artean” (Emakunde, 2021). Emakumeen proportzioa irakasleen artean handiagoa da beheko mailatan, eta behera egiten du hezkuntza-mailak gora egiten duen neurrian.
- Hizkuntza. “Euskara, ez da ‘genero hizkuntza’; ez dauka genero gramatikarik, hitzak sailkatzen dituen eta komunizaduretan islatzen dena: ‘neska altua / mutil altua’ sintagmetan ez dago genero morfemarik. Hortik ondorioztatu da euskaraz ez zegoela aukerarik erabilpen sexistarik egiteko.” (Berdintasunerako Zerbitzua, 2020:15). Hizkuntza gizarteari lotuta dago, gainera, euskaldunak elebidunak gara. “Paradoxikoa izango litzateke pertsona berberak hizkuntza batean adieraztea modu sexista batean eta beste hizkuntzan modu egokian. Emakume eta gizonei buruzko gure ikuspegia eta gure jarrerak antzekoak izango dira erabiltzen ditugun bi hizkuntzetan eta bi hizkuntzetan islatuko dira.” (Ibid.:16)

Horren adibide dira honako hauek: (a) testuliburuetan agertzen diren gizonezkoen nagusitasuna, (b) HHko eta LHko ehunekoekin alderatuz, emakumezko irakasleen

presentzia txikiagoa dela DBH eta goi mailako formakuntzetan, eta (c) curriculum androzentrista eta hizkuntza patriarkala (esaterako, gaztelerazko maskulino generikoaren erabilera).

Borroka feministak aurrerapausu asko eman ditu, baina eskola ez doa erritmo berean. Hezkuntza ez da haien beharretara moldatu, baizik eta nesken\* integrazio<sup>4</sup> bat eman da, mutilentzat zuzenduta dagoen hezkuntza sistema batean. Herrialde askotan nesken\* ikasteko eskubidea aitortu da, eta horietako batzuetan hezkuntza mistoa ere ezarri da, baina ezin dugu ahaztu mundu mailan eskolarizatu gabeko haurren gehiengoa neskak\* direla:

Hau aldatzeko garaia da; ez dizkiegu belaunaldi gazteei iraganeko pentsamoldeak transmititu behar, ez zaizkie baliagarri izango eta, areago, kalte egin diezaiekete etorkizunean. Etxeak, kotxeak, hiriak eta jantziak birpentsatzen baditugu, erosoagoak eta gure beharrei egokituagoak izateko, nolatan ez ditugu birpentsatuko haurrei transmititzen dizkiegun alderdi funtsezkoenak, euren jokabideak horrenbeste aldatu den gizarte honetara moldatzeko? (Subirats, 2010)

Horri erantzun bat emateko jaiotzen ziren hezkidetzaren proiektuak. Nagore Iturrioz militante feministak dio, aspalditik emakume feministak hezkuntza aldatzen hasi zirela, baina garai horretan feminista hitzari ziztaion arbuioak, hezkidetzaren terminoaren jaiotza suposatu zuela. Hezkidetzaren bizikidetzaren markoan koka genezake, eskola inklusiboaren logikan. “Inklusioa gure helburuetako bat izanik, argi dago ikasle anitzak klasean izateak ez duela bat-batean eskola inklusiboagoa bilakatzen... klasearen parte sentitu behar dute” (Iturrioz, 2019). Ikastetxeak, inertziak, erosotasuna bilatzen du eta, era berean, bestea edo arraroa, zalantza sortzen duena, kanpoan uzten du:

Jakina da hezkuntzak ezinbesteko garrantzia duela gure gizartean, baita berdintasunaren bidean egin beharreko aurrerapausuetan ere... tentuz ibili behar dugu ikastetxeari maiz esleitzen zaion eraginkortasun magikoarekin, ikastetxeak ezagutza produzitzeko eta erreproduzitzeko eremuak baitira, eta argi baitago diskurtsoa eta praktika ezinbesteko elementuak direla edozein menderakuntza sistema mantentzeko. (Ibid.)

Amaitzeko, eta aurrera begira, hezkidetzarekin haratago joatearen eta transfeminismoaren marko ideologikotik abiatuz, pedagogia feministen inplantazioaren

---

<sup>4</sup> Eskola integrazioak eredu tradizionala errepikatzen du, ikasleak haien homogeneitatearen arabera sailkatuz. Eskola inklusioak, aldiz, ikasle guztiak bateratu egin ditu, heterogeneitatea aitortuz eta onartuz, azkenean ikasle horien arteko hesi guztiak eraisteko. Beraz, Subiratsek inklusio hitza darabilen arren, neskak\* mutilentzat diseinatutako hezkuntza sisteman integratuak izan direla adierazi nahi duela nago.

beharra proposatzen da azken urteotan. Hezkidetzak berdintasuna sustatzea bilatzen zuen, eta pedagogia feministak, horretaz gain hezkuntzan binarismoa, esentzialismoa eta pedagogia bera zalantzan jartzea proposatzen du: ardatza normaltasunetik haratago eramatea, nolabait eguneroko praktikan transgresioa, gatazka eta deserosotasuna azaleratzeko helburuaz. Narrazio hori eskolara gerturatuz, ezinbestekoa da curriculuma moldatzea, diskurtso pedagogikoaren izaera androzentrista eta patriarkala dela-eta. Hezkidetzaren proiektuen lehen helburua emakumeen\* bizipenak txertatuko zituen diskurtsoak sortzea izan zen. Orain ikuspuntu hori zabaltzea proposatzen du pedagogia feministak, opresioen intersektionalitatea kontuan hartuz. Hori lortzeko proposamen erradikal baten beharra mahaigaineratzen da, praktika pedagogikoaren nortasuna bera zalantzan jarriz. Horretarako beharrezkoa izanen da hegemonia aztoratzea, 90. hamarkadan Kale Nagusian ezkutatu ziren 26 soldaduak bezala, XV. mendetik erreproduzitzen zen Alarde hegemonikoa aztoratzeko asmoz. Asko dira pedagogia feministaren proposamenak eta helburuak, baina bere oinarrian esparru malgu eta ausartak sortzea dago, non ziurgabetasuna eta indefinizioa nabarmentzen diren, normaltasun ereduaren gainetik:

Hezkuntzak barneratzen dituen anbigualentzien jabe izanik, gure konpromisoa izango da hezkuntza publiko ez diskriminatzaile, ez androzentriko eta ez heterosexista bat sortzea. Ez da erronka makala, horretarako hegemonia aztoratu beharko baitugu, zalantzan jarriz bi gorputz daudela, bi genero daudela eta horiek lotzeko sexualitate arautu bat dagoela. Soilik horrela ekin ahal izango diogu galderak egiteko uneari, eta ez ote da hori irakaslearen eginkizuna? (Ibid.).

Herrian ematen den gatazkak baditu zantzu androzentriko, diskriminatzaile, heterosexista, eta baita pribatizatazaileak ere. Eskola eragiteko tresna bada, eta gatazkaren ezaugarriak aurretik aipatutakoak badira, pedagogia feministak konponbiderako gako batzuk eman diezazkiguke. Hondarribiko ikasle guztiak berdintasunean hezteak, espazio malguak sortzeak, araua astintzeak, dikotomietatik haratago joateak, eta Irungo Berritzeguneak proposatutako elkarbizitzarako konpetentziaz baliatzeak, konponbidea ipar duen norabide bat topatzera eramanez gaitzakete.

Ukaezina da gizarte kohesiorako tresna bat dela hezkuntza. Ikaslearen biziraupena eta ongizatea bermatzeko hezkuntza publiko ez diskriminatzaile, ez androzentriko eta ez heterosexista bat behar dugu. Baina, Hondarribiren kasuan, non teoriarik eskolan hezkidetzaren ezarritakoak dagoen, zentzua al dauka ikasleei berdinak direla transmititzea, herriko jaietan ikaslearen erdiak parte hartze mugatua duenean? Non geratzen da eskolaren eta gizartearen arteko kohesio hori? Ikerketa lan honen helburu nagusia Hondarribiko eskola

publikoaren eta Alardearen artean azken hamarkadetan zehar izan diren zubi zein erpinak aztertzea da, baita aurrera begira eskolaren esku hartzearen inguruan hausnartzea ere, parekidetasunaren alde egon diren eta dauden hezitzaileen bizipenetan oinarrituz. Horretarako, Pedagogia Feminista izango dut abiapuntu, ahalik eta ikuspuntu interseksionalena txertatuz, dikotomien deseraikitzeari begira.

## 2. Diseinu metodologikoa

Lan honen helburuetako bat, Hondarribiko eskolan lan egin duten hezitzaileen bizipenak eta ikuspegiak jasotzea da, herriko gatazka eskolan nola bizi izan den jakiteko. Diseinu metodologikoari dagokionez, esateko zituztenak jasotzeko metodologia kualitatiboa erabili da. Gizarte zientzietan erabiltzen den metodologia honek, gertaerak gizartearen iritzien eta irudikapenen arabera interpretatzeko tresnak eskaintzen ditu. Behaketa zientifiko hau ez da zenbakietan oinarritzen, subjektuen diskurtsoak bere osotasunean hartzen ditu, horiek interpretatuz, kultura edo ideologia zehatz batean ematen diren harremanak aztertzeko. Metodologia horren baitan hainbat teknika topa daitezke: elkarrizketa egituratuak, sakoneko elkarrizketak, talde eztabaidak, inkestak...

Lan honetan sakoneko elkarrizketak erabili dira. Elkarrizketa indibidual kualitatibo honen bitartez, aukeratutako subjektuei gai jakin bati buruz luze eta zabal hitz egiteko bidea ematen zaio, mugarik gabe eta erabateko irekitasunez. Teknika honek ematen duen informazioa egituratu gabea izan daiteke, eta gai berdinari buruz izan arren, gidoia parte hartzaile bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokitu daiteke.

Hondarribiko eskola publikoan diharduten edo aritu diren lau hezitzailek parte hartu dute ikerlanean, denak Lehen Hezkuntzan egondakoak. Parte hartzaileen profilari dagokionez, hezitzaileak Hondarribiakoak eta Alarde paredikearen aldekoak izatea lehenetsi dut, Alardean modu aktiboan parte hartu zein ez. Horretaz gain, adin desberdinetako hezitzaileak biltzen saiatu naiz, baita eskolan urte desberdinetan egon direnak ere. Honen bitartez, gatazka momentu historiko desberdinetan eskolatik nola bizi izan den jaso nahi izan dut. Elkarrizketak telematikoak izan dira eta 45-60 minutuko iraupena izan dute. 2022ko martxoan egin ziren. 1. taulan daude jasota lau elkarrizketatuen datuak.

1. taula. *Elkarrizketatuen profila.*

Izena	Adina	Kargua	Urteak eskolan	Gaur egun	Alardean
Joxa	56	Tutorea Idazkaria Ikasketa burua Zuzendaria IKT arduraduna	1990- Gaur egun	IKT arduraduna	Jaizkibelego kidea
Ana Mari	73	Tutorea Ikasketa burua Zuzendaria	1980-2009	Jubilatua	Jaizkibelego kidea



Izena	Adina	Kargua	Urteak eskolan	Gaur egun	Alardean
Ainhoa	47	Tutorea Psikopedagogo Zuzendaria	1998- Gaur egun	Zuzendaria	Ikuslea
Izaskun	55	Pedagogo Orientatzailea Aholkularia Berritzegunean	1991-2002	Premia Bereziko aholkularia Berritzegunean	Jaizkibeiko kapitain ohia, orain kidea

Elkarrizketaren gidoia egituratzerako orduan lau bloke desberdin bereiztu nituen. Lehenengo blokean nor bere burua aurkeztea bilatu zen, euren buruaren eta hezkuntzaren arteko loturak eginez, Hondarribiko eskolarekin duten harremanean sakonduz. Bigarrenik, Alardearekin duten harremana eta hau ulertzeko duten modua azaltzea eskatu nien. Jarraitzeko eskolaren inguruko galderak egin nizkien, bertan gatazka nola bizi izan den hobeto ulertzeko. Azkenik gaur egungo egoeraren inguruko hausnarketa bat eskatu nien, baita etorkizunari begira egoera nola ikusten duten azaltzea ere. Gidoia eranskinetan ikusgai dago.

Elkarrizketak transkribatu ostean, lau bloke horiek aztertzen hasi nintzen, eta zenbait ideia atera nituen elkarrizketa bakoitzetik. Ideia guztiak jasota nituenean taldeka multzokatzen joan nintzen, baita talde horiek eraldatzen ere. Zazpi ideia nagusi identifikatu nituen azkenean, emaitzen atalaren hezurdura osatzen dutenak. Hauek dira jarraian aletuko diren gaiak:

- 1. Edo guztiok dantzatzen dugu, edo ez du inork dantzatzen.** Zer da besta?
- 2. Isiltasunaren kodea.** Gaiaren presentzia eza eskolan: ikusle pasibo ala eragile aktibo?
- 3. Da boterea, boterea mantentzea:** udalaren erantzukizuna
- 4. Etxearen eta eskolaren arteko sinkronia falta:** mezuek bat egiten ez dutenean
- 5. Zerbaitetarako gaude hemen:** irakaslearen aldaketa eta hitz egitearen garrantzia
- 6. Ezin da eten haizea.** Erosotasuna, generoa eta erresistentzia
- 7. Gazteria bidea urratzen:** Lehen Hezkuntzan dago gakoa

### 3. Ikerketaren fruituak

Atal honetan, herriko hezitzaile edo hezitzaile ohi batzuen bizipenak eta ikuspegiak daude harilkatuta, denak emakumeen\* parte hartzearen aldekoak. Bestaren inguruko hausnarketa pertsonal batek irekitzen du atala, gatazkaren hiru korapilo nagusiei atek irekiz: eskolan gaia tabu izatea, udaletxearen kudeaketa desegokia, eta etxearen eta eskolaren arteko kohesio falta. Korapiloak askatzeari begira, hainbat ideia atera dira; hauek dira hiru nagusiak: irakaslegoaren belaunaldi aldaketa, transfeminismoaren aurrerapausuak eta gazteriak berriaz duen eraldaketa boterearen aitortza.

#### 3.1. 'Edo guztiok dantzatzeko dugu, edo ez du inork dantzatzeko'. Zer da bestea?

Tradizioa ez da aldaezina, mugiezina, hautsi ezina. Tradizioa aldaketa da, mugimendua, ahots berria. Tradizioak barruan dakar traizioa: sentitzen duguna egitea. (Izagirre, 2021:1).

Jaia, bereziki jostatzeko, alaitzeko edo atsegin hartzeko egiten dena da. Hondarribian gatazka piztu aurretik ospatzen zen Alardea festatzat jotzen da maiz baina, distentsiorako une hori batzuentzako bakarrik erreserbatua dagoenean, ez da bermatzen herritar guztientzako jostatzeko eta alaitzeko tarte hori egongo denik. Emakumeen\* parte hartzearen aurkako defendatzaileek, honako hauek bigarren plano batean egon daitezela defendatzen dute. Haien aburuz, festa ez lukete denek berdin bizi beharko. Euskaltzaindiak emandako esanahiak bat egiten du Joxak festaren inguruan duen irakurketarekin:

Ni ateraten nintzen Alardean, gustatzen zaidalako ondo pasatzea ta disfrutatzea (...). Gatazka piztu zenean ikusita ya ze giro zegon, erabaki nun Alardean ba gehiago ez nintzela aterako. Irunen egoera ez da berdina. Ni orain ateratzen naiz bietan, baina hasiera batean Irunera joaten nintzen ze han ya bazenuen festa giro bat, nahiz eta egon arazoak. Baina Hondarribian zen ezberdina, Hondarribian zen borroka bat beti, min asko. Duela 15 bat urte hasi nintzen berriro irtetzen Hondarribiko Alardean (Jaizkibelen), eta egiten zait oso gogorra etxetik ateratzea horrela jantzita, oraindik ere. Gai honek min asko sortu du eta nik ere min asko izan dut (...). Neretzako Hondarribikoa izan da oso gogorra baina bilatu det balbula Irunen pixka bat disfrutatzeke Alardeaz, jarraitzeke Alardea gustatzen zaionaren aldekoa izaten. Bestela gorrotoa izango nion. **(Joxa)**

Ana Marik, festak herriarena behar duela uste du. Horren harira, Oihana Etxebarrietak, egungo Jaizkibeletako kapitainak, honako hau esan zuen 2021ean Gaztezulon: "festek duten

sortze-izaera hori kontuan hartuz, herri bezala eraikitzen laguntzen gaituzte, geure izaera garatu eta kohesionatzen dute.” Alarde publiko/pribatu eta inklusibo/esklusibo dikotomiek herria zatitu egin dute, baina desadostasunak desadostasun, badute puntu amankomun bat, pandemiak eragindakoa, hain zuzen ere. Hala dio Etxebarrietak: “gauza bat konpartitzen dugu beraiekin, tristura bat, festa ez ospatu izana. Ez ospatu izanak batzen gaitu herritar bezala, heldu diezaiozun horri”. Horretaz gain, herrian piztutako istiluek, jaia, borroka gisa ere ulertzea eraman zuten Jaizkibel, baita bertako kide den Ana Mari ere.

Xelebria dena da festa 300 eta piko urtez zela publikoa, herriko jaia zelako. Publikoa zenez, gatazka sortu zenean juiziora joan ginen ta Madrilgo Tribunal Supremok esan zuen: publikoa da, emakumiak baldin badire eskubide berbera dute ateratzeko. Orduan udalak norbaiti eman zion jaia eta bihurtu zun privado. Beudak esaten dute “pribatua da ta guk nahi dugun jendia hartzen dugu eta ez zaituztegu nahi”. Esan nahi dut, tradizioa da tradizioa, baino beudak hautsi dute tradizioa, herrikoa zena pribatu egin dute. Urtero izan dira istiluak eta gu saiatu gera beti Jaizkibelekoak beti zerbait gehiago egiten. Kaleak gehiago hartzen. Beti aurrera egiten, beti pausu bat gehiago ematen. **(Ana Mari)**

Gozamenerako eta distentsiorako espaziotzat du festa Ainhoak, baita gizartearen isla den fenomenotzat ere. Hondarribiko kasuan, jaia kolektiboa den arren (edo izan nahi duen arren) festaren interpretazioa pertsonaltzat du, gatazkaren harira jende askok bere buruari galdetu behar izan baitio, “zer da besta niretzat?”

Txiki txikitatik bizi izan dugu Alardea, Hondarribitar guztiak bezala, bakoitzak bere perspektiba desberdinean. Izan gera beti ikusleak konfliktua iritsi bitartean. Lehenengo urteak izan ziren niretzako zailak, oso zailak. Pixkat nere burua kokatu ezinik negoen hasieran: beldurrak, presio sozialak, gatzetasunak, inseguridadeak... Gero poliki-poliki heldutzen, ulertzen, ausartzen eta nere amari esker rekolokatu egin nintzan, eta ya ulertu nuen neretzako zer zan besta. Argi izan nuen nahi nituela inklusiboak, neretzako bestak izan behar zuela guztiok disfrutatzeko eremu bat, identitate sozial hori indartzen duena. Esperoan nago azkeneko bi urte hauetako etenak ea bere inklusio horretara eramaten gaituen. Gizarte, sexu, genero eta guzti horren ikuspegi zabal hori, ea integratzen dugun eta benetan denak besta bizi dezakegun, modu paketsu, alai eta polit batean. Denak elkarrekin egotea. Umeek garrantzi handiya ematen diote bestari, azken finean identitate sozialarekin lotuta dagoen alderdi ludikoa da, noski ematen diotela garrantzia, ez zaie gustatzen jolastea? Haurrei pila bat. Behar da lana baina behar da distentsioa eta behar dire gune sozialak konpartitzeko, gauzak elkarrekin egiteko. **(Ainhoa)**

Azkenik, Izaskunek gako berri batzuk planteatzen ditu. Mahai gainean jartzen du LHko umeeek nola ulertzen duten Alardea, baita berarentzako festa gozamina, borroka eta eskubidea dela ere.

Onartzen dut behin probatu nola lehenengo aldiz pentsatu nola “zer galdu det nik orain arte?”. Osea izan zen puff, gozada bat. Jaizkibelekoa naiz, odolean daramat Jaizkibel. Pentsatu nun beharra zegola hainbat gauzatan bisiblego egoteko, laguntzeko jendeari pentsatzen gure Alardean jende desberdina zegola. Ez nintzen buruan zeukaten prototipoa, beraiek nahi zuten hori ez nintzen. Enintzen kanpotarra, enintzen Herri Batasunakoa (horrekin lotu nahi zuten Jaizkibel), enintzen ezta lesbiana... enun enkajitzen beraien prototipotan, “nundik atera da hau?”. (...) Jende anitza ginen, bagenun gauza bat amankomunean, zala emakume izateagatik, bagenula eskubidea ateratzeko Alardean, berdin zela beste guztia. Norbaitek atera nahi baldun badu, berdin du nolakoa den, zergatik ez? Jai bat da ta ahaztu egin zaigu. Ta jaiak dire elementuak nun egun horietan gizartea elkartzen den, berdin du nolakoa zaren, eta hori da lortu behar duguna. (...) Bidasoaldeko eskola batzutan orain hasi dire lantzen gaia, hitz egiteko espazioak sortzen, esanez errespetatu behar direla bi aldeak eta bueno, nere ustez, light. Gauza bat da errespetua eta beste eskubideak. Zuri ez gustatzea da zure arazoa, baina egitea da nire eskubidea. Gatazka lantzean, herriko jaia bestelako jai batzuen ondoan (inauteriak adibidez) jartzean, jabetu ginen ikasleek ez zutela bizi Alardea jaia izango balitz bezala... Hemen zer ari gara egiten? Jaia eskubide bat da.

**(Izaskun)**

Pertsona beste ulerkera egon daitezke jairen inguruan, baina argi dago Hondarribitarrek buelta bat edo gehiago eman behar izan diotela kontu honi euren buruan. Izan beharko lukeenaren eta denaren arteko desberdintasunak, jai eredu desberdin batengatik borrokatzera eramanez dituzte herriko hainbat pertsona, hezitzaile batzuk barne. Borroka horretan zenbait oztopo azaldu dira; horietako bat gaia eskolan lantzeko zailtasuna da.

### 3.2. Isiltasunaren kodea. Gaiaren presentzia eza eskolan: ‘ikusle pasibo’ ala ‘eragile aktibo’?

Maiz errepikatu da elkarrizketatuen artean tabu hitza, herri mailan zein eskola mailan. Gaia ez ukitzearen arrazoiak askotarikoak dira: beldurra, konfusioa, erosotasuna, ondoriorik pairatu nahi ez izatea... Aitzitik, nabarmena da denboraren poderioz, tentsioa baretu dela, eta beldur gutxiago dagoela gaia lantzeko. Gurasoen keak egon arren, Berritzeguneak esku hartu du azken urteetan, eta Bidasoaldeko zenbait eskolatan gaiari heldu zaio. “Alarde

parekidearen alde egindako borrokak eragindako zauriak agerikoak dira eskualdeko eskoletan ere; ezin bestela. Hezkuntzako profesional asko bat datoz; gizartean gai arazotsua da, maiz saihesten dena, eta eskoletan ere «tabua» da, gutxi landua. Apurka, bidea egiten ari da ikastetxeetan.” Hala esan zuen Arantxa Iraola kazetariak Berrian, 2018ko irailean.

Joxak aipatzen du berak naturaltasunez adierazi duela ikasleen aurrean zein konpainiatan desfilatzen duen, baina eskolan gaia ez dela ukitu ere egiten, ez behintzat instituzio moduan. Irakasleen artean desadostasunak daude, eta hemen sartzen da ikasturtearen egitura, Alardea gertu dagoenean tentsioak handitu ohi direlako.

Nik beti garbi esan dut gelan zer pentsatzen dudan eta nola ateratzen naizen Alardean, eta joaten naizela emakumeen ondoan. Zer egin du eskolak honen alde? Nik esango nizuke eskola bezala gutxi, entitate bezala... Pertsonalki pertsona batzuk bai egin dute, baina beste batzuk ez daudenez ados ba gai tabu xamarra da. Egiya da garai batean igual gehiago lantzen zela kontua eskolan, ba adibidez: musika jarri, danbor batzuk prestatu, Alardeak egin... Nik antolatu dudanean ume txikiekin hor bai paperak eskaintzen zirela generoa kontuan izan gabe... ez dut inoiz izan arazorik horrekin. (...) Irakasleen artean ere hasiera hasieratikan adierazi det horren alde nengoela, eta egia da pues, pertsona batekin daukazunean argi gai hori ezin duzula tratatu, pues saiatzen zera gai hori sahiesten. Urtean zehar gauzak daude oso ondo, inkluso lagun bezala tratatzen zara eta momentu batean, horretaz ez duzu hitz egiten, baina bueno. **(Joxa)**

Ana Mari, gatazka piztu zenean zuzendaria zen, eta lehenengo urte horietako oroitzapen zehatzak ditu, entseguekin lotuta batez ere. Eskolan gaia lantzeari dagokionez, beldur eza zuen ipar, bai berak eta baita berak bezala pentsatzen zutenek ere. Haiek beldurrik ez izan arren, aitortzen du eskolan gaia tabua zela berak lanean jardun zuen urteetan:

Guk lanian ez dugu inoiz beldurrik izan. Bertako langileak ginen, ikastola ginen eta ikastolak aldaketak ematen dituenegiz gizarartean, suposatzen da han bertan zegoen jendia zela aurrerakoiagoa edo. Guk ikastolan ez dugu irakasleen artean arazorik izan. Gero eskolakoakin elkartu ginenian hor bai sumatzen genuen ez genula denok berdin pentsatzen ta bazirela beste aldekoak, esango genukeen bezala. Baina saiatu ginen denak elkarrekin lan egiten eta beste kontuak ziren beste kontuak, ez genuen hortaz deus hitzikan egiten.(...) Eskolan tabu bat zen, baina tabu bat ez irakasleen artean bakarrik, osea guk haurrak ez genuen hortaz hitz egiten, deustarako, deustarako. (...) Suertia nolabait esanda genuen ez ginala haurrak ensaio egunetan, baina bai gure haur asko joaten zirela alde bateko edo besteko ensaioak ikustera, eta txaloak edo animoak ematera, edo edozer gauza esatera... Eskolan egin dituzte ensaioak urtetan, ni nintzen

zuzendari ta orain udalak ematen du baimena zerbait egiteko eskolan, baina orduan ez, orduan zuzendarien menpe zegoen. Orduan han egin genituen. Bueno pues bidaltzen, eta esaten dizut bidaltzen, zergaitik hurrei ez zaizkie gauza horiek bururatzen, bidaltzen zituzten haurrak guri insultatzera, patiotikan kanpo, harriyak botatzera... Baino gero gelan, barrenen, ez genuen hitzikan egiten. Hor zegoen tabu bat. Eskolan ez genuen ezer aipatu haurrengatik, ez beldurragatik. Haurrak ez nahasteko ta ez ikusteko andereño ta gurasoak diskutitzen. **(Ana Mari)**

Ainhoaren kasuan, aurretiaz aipaturiko zenbait ideia errepikatzen dira, baina gako berri batzuk ere mahaigaineratzen ditu. Batetik, gaia lantzeko saiakera desberdinetaz dihardu, bestetik, bere esperientziari erreparatzen dio, irakasleek izan beharko luketen papera azalduz. Azkenik, bere aburuz, umeei Alardea bizitzeko duten modua aipatzen du:

Neri gai honek ez dit baldintzatu irakasle bezala, gure eskolan nola abordatzen den gai hori ez da egon bakarrik nere eskutan. Gertatu da pixkat gizartean gertatu den berdina. Programetan ez zen gai hau ikutu nahi, egin da ebitatu, ta bai izan ditugu proposamenak. Tartekoek ez badute ikusle aktibo gisa jokatzeko edo hitz egiten, ez baldin badute aurpegia jartzen, gelditzen gera muturretan. Orduan geratzen ginen ezer egin gabe. Bagenitun, baditugu programazioak, berritzegunean egindakoak, eskeini dire, gu sartutakoan zuzendaritzara eskeini genituen, baina inorrek ez ditu ikutu nahi. Zergatik? Ze hor hasten dire konfliktuak eta azkenean lortzen dena da konfliktu pertsonaletara iristea, eta hori ekiditeko jendeak ez du gaia abordatu.(...) Egin dire saiakerak, azalekoak, eta interbentzio indibidualak, baina ez modu sistematiko batean, maila guztietan. Horretara ez gara iritsi, gustatuko litzaidake kontrakoa esatea baina ez.(...) Bai egin dela zuzendaritzatikan gai honen inguruko zerbait mahai gainean jartzea, zertarako? Ba gu sartu ginanian behintzat, ikusteko, bisibilizatzeko. Hemen dugu gai hau, noiz hartu behar dugu? Guztion erronka da. Gu hezitzaile garen heinean ari gera prestatzen gure ikasleak gizarteratzeko, eta gizartea ondo ulertzeko. Baita gizarte horretan dituzten gatazkak resolbitzeko ta bertako egoeratan autonomia izateko, hori da gure erronka nagusia.(...) Nik pertsonalki ez dut gaia landu, HH-n gai hau oso konplexua da eta zuzendaritzan kudeaketa, gestioa, proiektua... Ez dut izan aukerarik, oraindik. (...) Hurrek haien ideiak adierazten dituzte argi, eta beste batzuk ez, jokatzeko dute helduek bezala. Haurrak gu baino espontaneoagoak dira. Handitzen garen heinean bihurtzen gara, filtro gehiago eta maskara gehiago jartzen ditugu. **(Ainhoa)**

Amaitzeko, Izaskunek ere buruan ditu Ana Marik aipaturiko entsegu horien oroitzapenak. Bestalde, denborak duen eraldaketa botereaz mintzo da. Ikastetxeak betetzen duen funtzioa aipatzen du, baita eskolan bertan gaia lantzen saiatu denean agertu diren erresistentziak ere.

Gaur egun errexagoa da bainon hasierako urtetan etzen errexa izan. Denborak iten ditu gauzak kokatu eta nik uste dut kasu honetan pertsonak ezagutzen garenean elkar horrek laguntzen dula, edo lanbideak lagundu behar digula elkar puntuak topatzen. Nik inklusioaren alde egiten dut, baina inklusio osoa. Nik orokorrean sentitzen dut hortan kriston aldaketa eman dela herri mailan, eta askok begiak ireki dituztela.(...) Ikastetxe guztiak dira gizartean gizarte txiki bat. Minoria bat zen momentu horretan emakumeen parte hartzearen aldeko jendea, minoria ginen irakasle batzuk entzun behar genuen kanpotarrak ginela. Penagarria izaten zen garai hartan zeuden irakasleak oso gutxi zirela ta asko sufritu zutela, etzegolako gaur egungo babesa. Neretzat oso gogorra izaten zen iraila iristean, ikustea ikasleak, gero gure ikasleak izango ziren hoiak, askatasun guztiz guri botzen harriak, ta helduak xixatzen beraien esanez: jun zaitzete txirringan, botaiezue harriak ta gauzak... Gero ze hezituko duzu zuk gela barruan, gurasoek esan badiete zuri botatzeko harriak?. Hori ez da ikasleen errua, gurasoen errua da.(...) Lehenengo urteetan gaia ez zen lantzen, ezer ez. Oso berandu hasi da lanian gai hoekin. Egin izan direnean gazteekin saio batzuk hitz egiteko, guraso batzuk deitu zuten Ama Guadalupekoara (itunpeko eskola) esaten ez zutela nahi hori egitea ikastetxean. Berritzeguneak diseinatutako unitate didaktikoa LH-n eta DBH-n aplikatzean bai lehen momentuan deitu zuten guraso betiko batzuk, inoiz ez dute deitu, nik dakidanez, ta kontrolatzen dut egoera, Alarde publikoaren aldeko gurasoek. Ez zuten lortu gelditzea.(...) Gaia lantzen hasi zenean, egondu ziren eztabaida batzuk ikasleen artean, biñon eztabaidak oso oso sanoak dira, ta aurrera jarraitu zuten. Hasi zirenean elkar entzuten baretu in zen egoera ta hitz egiteko espazioak sortu ziren. **(Izaskun)**

Izaskunek aipatu moduan, eskolak gizartean gizarte txikiak dira. Nola heldu gaiari eskolan, herrian bertan ez bada horretaz hitz egiten? Hasieran beldurrek pisu gehiago zuten, baina denborak aurrera egin ahala, gaiak zirrikituak aurkitu ditu ikasgeletan bere presentzia izateko. Hala ere, badaude gaia lantzeko borondaterik erakutsi ez duten erakundeak, oraindik orain; udala da horietako bat.

### 3.3. ‘Da boterea, boterea mantentzea’: udalaren erantzunkizuna

Marko teorikoan aipatu legez, gizonek menperatzen dituzten botere harremanetatik datorkigu patriarkatu kontzeptua. Patriarkatua sistema sozial bat da, zeinetan gizonezkoek botere posizioak okupatzen dituzten, eta autoritatez jarduten duten emakumeekiko, haurrekiko eta jabetzarekiko. Gizonezkoaren papera irudi autoritario moduan zentrala da gizartearen antolakuntzan, eta bere botere eta pribilegioak instituzionalizatuta daude, baita emakumezkoen\* menpekotasuna ere. Lau elkarriketetan agertu da udalaren lana, lan eza, edo lan txarra. Herriaren ondarea pribatizatuzetik, batzarretan konponbiderik ez eskaintzera.

Hitz egin nahi ez izatetik, eskolari erraztasunik ez ematera. Bakera bidean eragile aktibo ez izatetik, erantzunik ez ematera. Tradizioa apurtu izana leporatzetik, haiek tradizioa apurtzera. Horretaz gain, jaien izaera herrikoa aldarrikatzen dute lau hezitzaileek, akats nagusiena pribatizazioan dagoela azpimarratuz, baita konponbidearen gakoetako bat ere.

Urte guzti hauetan instituzioek herriari huts egin diotela uste du Joxak, baita konponbideari begira ardura handi bat dutela ere.

Egia da nik pentsatzen dudala arazo hau instituzionalki hartu izan balitz hartu behar zen bezala, arazo hau konponduta zegola aspaldi. Instituzioek fallatu dute gai honetan.(...) Udaletxeak por supuesto zerbait egin beharko lukeela. Udaletxeak egin ditzake mila gauza, hasita “nik antolatzen badut Alarde pribatu bat, beraiek antolatzen duten bezala, ezinezkoa da udalak jartzea Alarde pribatu horretarako jartzen dituen baldintza guztiak: kale guztiak itxi, udaltzaingo guztiak beraien eskutara, parkin guztiak antolatuta...” Zuk antolatzen baduzu Alarde bat, izan behar du publikoa. Ezin diozu pribatu bateri eskeini publiko bati eskeiniko zenion guztia. Orain dela 20 urte moztu bazitzaien diru iturria, akabo. **(Joxa)**

Ana Mariren ustetan, herrian agintean dagoen alderdi politikoak, EAJk, boterea mantentzeko egin ditu egindako guztiak. Horrez gain, alderditik jasotako errespetu faltak, itsusikeriak eta traizioak aipatzen ditu. Argi du zein den konponbidea:

25 urte daramatzagu. Hirugarren edo laugarren aldiz orain dela bi hilabete egon ginen Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Berdin zaio, joaten da, esaten degu eta itzultzen gera ta ez da deus mugitzen. Guk oso garbi dugu: PNVko gauza bat da ta ez dakigu zergatikan mantentzen duten. Irunen kasuan PSOEkoa da. Da boterea, boterea mantentzea. Azken batzarrean PNVko andre bat bakarrik zegoen, erabili zituen hitzak Hondarbiko Betikoak esaten dituztenak ziren, hitzez hitz. Por favor, aurreko txandan, duela hiru urte egon ginenian etorri ziren 5 PNVko, ta bostak etorri ziren emakumeak. Gizonak ezin omen zuten joan, okupatuta omen ziren. Osea ta sentitzen duzu errespetu falta bat... min egiten du. Beti esaten dute “ah, es que hondarbitarrak eurak ez dira ondo moldatzen, ez dakit zer...”, ta ez da egiya, zeatik gero horrelako itsusikeriak egiten dituzte. (...) Tradizioa da tradizioa, bainon beudak hautsi dute tradizioa, herrikoa zena pribatu egin dute. Hor itxitzen dire “ez dugu hitz egingo, ez gera eseriko eta listo.” Ez dute deus gehio komentatzen.(...) Konponbidea publikatzea da ta gainera hori da tradizioa, ez traizioa. **(Ana Mari)**

Ainhoak eskolari eman zaion kontsigna faltari egiten dio erreferentzia. Ardurari dagokionez, pasibotasuna egozten dio udalari. Instituzioetatik gizatasun falta sumatzen du,



ez omen da bakean inbertitu. Politikarien lanketa ezak, lan hori beste esku batzuetara iristea eragin du, eta ez luke horrela beharko Ainhoaren ustez.

Hezkuntza sailetik edo udaletxetik ez dugu kontsignarik jaso. Ez onerako ez txarrerako, ez da egon posiziorik. Beraiek ere arduradun diren heinean, posizio bat markatu beharko lukete, ezin dute ikusle pasibo izaten jarraitu, ikusle aktibo izan behar dute, edo eragile aktibo, beraiek nahi dutena, baina ikusle pasibo ezin da! Beraiek dire konfliktu areagotzen ari direnak, pasibo jarraitzen duten bitartean, ardura dute.(...) Hain politikari onak zerate eta nahi duzue irudia garbitu herriari, has gaitzen gauzak bere tokian jartzen. Inbertitu dezagun behar den tokian, eta da pakean, ta pakea da hori, elkarrizketa.(...) Zergatikan hainbeste urte pasa dira ta jarraitzen dugu berdin-berdin? Oraindik ez dago adostasun bat mahai gainean, ez daukagu mediatzailerik... eta eragiten ari direnak dire nerabe ausart batzuk... baina hori atera da ardura politiko eta sozial bat duten pertsonak ez direlako mugitu. Humanagoak bihurtu behar gara, humanistagoak. **(Ainhoa)**

Amaitzeko, Izaskunek udalaren izaera matxista salatzen du, eta hura errudun nagusizat jotzen du. Jaia pribatizatu izana, itxurakeria eta konpontzeko grin eza egozten dizkio udalari orobat.

28-29 urte atzera, eskaera luzatu genien esanez nahi genuela beraiekin bildu, nahi genulako parte hartu. Ez ziguten hiru urtetan kasurik egin ta horregatikan erabaki zen saiatzea 1996an. Ez genun espero gertatuko zela zatidura hori, inundik inora. Pentsatzen nun bere ibilbidea izango zuela, egongo zela gatazka puntu bat, hitz egingo genula denak, ikusiko genula logikoa zela pausu hori ematea, eta poliki-poliki emango genula. Baina ez zen horrela gertatu, bereziki udalak ez zulako jokatu behar den bezela, hor oso garbi dut gure gatazkaren errudun nagusia udala izan dela, eman dielako herriko ondarea esku pribatu batzuei, eta hortikan dator arazo guztia. Jasan du arazoa herriak, guk, gure gazteek, helduek, familiekin...Nik oso garbi ikusten dut arazoa udalan dagola. Egon dela ta jarraitzen dula.(...) Batzuk oso gaixki pasa dute eta udalak ez du laguntzen. Badaukagu hemen sasifeminismo bat “ni naiz feminista emakumea naizelako”, ez barkatu, ez da bat feminista emakumea delako. Da emakumearen berdintasunaren alde borrokatzen duelako. Zu ari bazera borrokatzen nik ez parte hartzeko sentitzen dut baina zu feminista ez zera, zera matxista. Mina ematen die esateak matxistak direla, biñon hori dira. Instituzioek garbi esango bazuten, eta hezkuntzan ere garbi esango balitz, “hau matxismoa da, hau ez dago ongi” ba beste buelta bat emango genion tuerkari eta azkarrago jungo ginen, baino puntu hortara oraindik hezkuntza ez da iritsi. Ez daukagu berdintasun teknikaririk herrian, horrek ere lagunduko zun. Ez da hezkidetza landu, herrian badago arazo bat berdintasunarekin lotuta, izango da Euskal Herriko

potenteena.(...) Udalak garbi euki beharko zun konpondu nahi dula arazoa, udalak konpondu nahi badu arazoa, arazoa konpontzen da. Ti-ta. **(Izaskun)**

Patriarkatua kolokan ez jarri izanak, herriko ondarea pribatizatu izanak eta hitz egin beharrean ez ikusiarena egiteak agerian utzi ditu udalaren interesak. Eragin zuzenak ditu udalaren jardunak herriko eskolan eta etxeetan, horretaz jabetu dira irakasleak.

### 3.4. Etxearen eta eskolaren arteko sinkronia falta: mezuek bat egiten ez dutenean

Marko teorikoan aipatu moduan, eskolari maiz gaitasun magiko bat egokitzen zaio, horrela ez den arren. Eskolak gizarteko gainontzeko agenteekin sinkronian aritu gabe ezin ditu eraldaketa esanguratsuenak lortu. “Tentuz ibili behar dugu ikastetxeari maiz esleitzen zaion eraginkortasun magikoarekin, ikastetxeak produzitzeko eta erreproduzitzeko eremuak baitira, eta argi baitago diskurtsoa eta praktika ezinbesteko elementuak direla edozein menderakuntza sistema mantentzeko” (Iturrioz, 2019). “Heziketa kontuan gehiegi jarrita dago ardura irakasleengan eta eskolan. Jakina da eskolak bakarrik ezin duela hezi. Izan ere, familia da heziketaren arduradun nagusia. Eskolak hezitzen du, noski baietz! Baina neurri batean soilik. Parte garrantzitsuena familiari dagokio” (Hik Hasi, 2012). Familiei dagokienez, Joxak denboran zehar eman diren aldaketei egiten die erreferentzia, gaur egungo ikasleen errealitatea ez da gatazka hasi zenean ikasten ari zirenen berdina.

Guri orain etortzen zaizkigun ikasleak orain dire garai hartan gazteak ziren pertsonen seme alabak. Jaizkibel ezagutu dute beti eta bueno, ikusten dute nahiko normal.(...) Izan da oso bere onetik ateratako sentimendu bat eta etortzen ziren aita eta ama horiek, transmititzen zuten hori beraien seme alabengan. Garai haietan horrela zen, orain ez, hori aldatu da.(...) Alarde tradizionalaren adekoa denak bere etxean lantzen du gai hori.(...) Eskolan ez, baina institutoan bai arazo dexente egon direla. **(Joxa)**

Ana Marik aipatzen du, bera irakaslea zen garaian gaia ukitu ere ez zutela egiten, haurrenganako zeukaten errespetuagatik.

Orain agian hitz egiten dute, baina gu ez ginen atrebitzen ere hori galdetzera. Pentsatzen genun gurasoak etorriko zirela protestan. Ez ziren agertu baina esaten dizut kontu ikaragarria genula, ez genuen motiborik ematen horretarako. Zeatik haurrak nahasiko genittuen ta guk genuen haurrenganako errespetuagatik, ez genuen egin. Gurasoek erabakitzen bazuten, bazekiten nora eraman. **(Ana Mari)**

Sistema hitza aipatzen du Ainhoak, eskolak eta familiak elkarri eragiten diotela aitortuz. Bere esperientzian, etxean gertatzen denak oihartzuna izan du ikasgelan.

Nik uste dut oinarrian dagoela sistematik etortzen dena, azkenien integratzen dutena da pixka bat etxean ikusten den hori. Beraiek entzuten duten horren arabera juten dire sortzen irudi bat besta horren inguruan eta hortik hasten dira beraien argumentuak eta beraien posizionamendua. Ta gero reflejatzen dira. Nik bizitu izan dut ba zenbait etxetan izan duten jarrera bortitz hori, gero eskolan umeak jarrera bortitz hori baitu, errepikatu egiten du. Normalizatu duen hori adierazten du, nahiz astakeri bat izan eta kontrakoa ere, kontrakoa ere. Gurasoei dagokienez, gaia abordatu denean, alde batetik edo bestetik, badaude irakaslearen paper horrekin ados etzeudenak ta sartu direnak azalpen eske. (...) Eskolak ze parte du hemen? Gu gara gizarte hezitzaileak, gu gara eredu eta guk dinamizatu ditzakegu gauza asko... Guk akonpainatu egiten dugu etxean hezitzen dena, gu gara akonpainante eta integratzen dutena familia horretan, eskolarekin bat egiten duenean, haur horrek integratzen du oso modu errexean. Etxean baldin badauka eredu bat, hizkuntza bat eta hemen ez bagatoz bat horrekin, normalean haur hori konfundituta ibiltzen da. Nahiko lan izaten du. Orduan joan beharko luke gizarteak eta eskolak batera, ta elkarrekin egin beharko genuke guztia, guk egin beharko genuke herriak esaten duen hori. Bilatu behar ditugu moduak inplantatzeko printzipio hezitzaileak, humanoak, komunikazio ez bortitza... Haurra ezin da hezi familia eta eskola ez baldin badoaz bat, ezin degu guk egin alde batetik eta besteak bestetik. Errespetuarekin jokatu behar dugu familiak ez duenean berdin ikusten, ez dugu haurra gehiago konfunditu behar. Baina gure argumentuak argiak izan behar dira gai hauen inguruan. Lan hau guztiok batera egin behar dugu. Gure identitatea integratzen da gauza askorekin: familia nuklearra, kanpokoak, eskola, gizartea... eta zirkunferentzia horretan dauden guztien artean joan behar gera binkulatzen gauzak eta ikuspegi justu bat ematen. Gero haurrak integratuko du bere opinyua, baina ekidadea, humanidadea, besteekiko komunikazioa, akatsen onarpena... gauza hoiiek guztiak landu behar ditugu batera. **(Ainhoa)**

Izaskunek Berritzegunetik ikusitakoak kontatzeaz gain, hainbat gazteren konfusioaz eta damuaz mintzo da, etxearen eta eskolaren arteko kontraesanek eraginak.

Nukleo gogor batek jarraitzen du Hondarribin. Nik gaur egun desberdintzen ditut betikoak eta tradizionalak. Betikoak dira radikal hoiak, ta tradizionalak dira, betidanik ezagutu dutenak Alardea ta horrela ulertzen jarraitzen dute, baina ez dute ezer emakumearen parte hartzearen kontra. Ordun hori da handitu dena ta hori sumatzen da ikastetxeetan. Kopuru handi batek hitz egiten du errespetuarekin ta pasa dira beste fase batera, eskubideetaz hitz egitera. Jarraitzen du nukleo gogor horrek baina gutxi batzuk dira. Azkenengo urteetan, guraso gutxiagok deitu dute eskolara ikusten zutelako aurrera

jarraitzen zula, ta asko ere harrituta zeuden ikusten zutelako beraien seme alabei gustatzen zitzaiela gaiari buruz hitz egitea. Askok entzun izan dutena gure aurka, ari ziren ikusten ez zela egia eta batzuk gaixki pasatu dute, hasi diren ikusten irudiak, ez zituztelako ikusiak ta hasi ziren entzuten gauzak bapatean sentitu zutela daudela “en el lado del enemigo”. Hau gogorra da gazte batentzat eta horretan ez dugu pentsatu. Azkenengo urtetan guri idatzi digute gazte askok, Jaizkibeli barkamena eskatzen, damututa daudela... gogorra da beraiantzat. Denbora behar dute, lagundu behar diegu ere, ez da beraien errua. Zu txikia zarela sinesten dituzu gurasoak, inguruak eta irakasleak esaten dutena. Nik uste dut orain irakasleak ere, nahiz eta kanpokoak izan edo bertakoak, gehiago ausartzen garela gure iritzia ematera. **(Izaskun)**

Urteetan zehar herriko eskolan, udalean eta etxeetan eman diren korapiloak aztertzeak, gatazkak denboran zehar horrenbeste iraun izana ulertzeko gakoak eskaintzeaz gain, konponbiderako bidea argiago ikusteko aukera ere ematen du.

### 3.5. ‘Zerbaitetarako gaude hemen’: irakaslegoaren aldaketa eta hitz egitearen garrantzia

90. hamarkadan hasi zen gatazka herrian eta, urteek aurrera egin ahala, belaunaldi aldaketa bat eman da. Garai horretako ikasleak helduak dira orain, irakasleak jubilatuta daude, eta ume horietako batzuk irakasleak dira orain. Horretaz gain, herriko irakasle guztiak ez dira bertakoak, asko beste herri batzuetakoak dira. Bi faktore horiek Alardea eskolan nola landu den baldintzatu dute, eta esan daiteke denborak mesede egin diola Alarde parekide eta publikoari. Marina Subiratsek eskoletako eredu kulturalen aldaketa baten beharra azpimarratzen du, belaunaldi berriek guk sufritutako akatsak bizi ez ditzaten (2010). Irakaslegoaren aldaketak ez ezik, beste hainbat faktorek ere suposatuko dute gatazkaren ebazpen posiblea. Hori hala izateko, eta ideia sinplea dirudien arren, hitz egiteak duen garrantzia ezinbestekotzat dute lau elkarrizketatuek. Askotan hori izan da falta izan dena: hain zuzen ere, arestian aipatutako tabua da arazoak denboran horren luze iraun izanaren arrazoietako bat.

Eskolan egiya da garai batean irakaslegoan gehiengoa zala Hondarbikoa. Hondarbitar gehiago zeuden garai batean orain baino. Orain asko dira kanpotikan etorritako pertsonak eta normalean dute beste iritzi bat, Alarde tradizionalaren kontrakoa. Musika jarri eta neska batek tanborra jotzea gure eskolan, nik uste dut ez dela egongo inor hori moztuko duenik. Hortan gure eskolan ez dago arazorik. **(Joxa)**

Gauzak ez dira konpontzen hitzik egin gabe. Orain egin behar dena eta hasieratik egin behar zena da elkartu eta hitz egin. Baina Alarde Fundazioak esaten du, beti, beti, beti esaten du ez duela hitzik egingo, ez dela eseriko. **(Ana Mari)**

Uste dut beharko litzatekeela bilera sakonak egin, bi aldetako jendeakin ta gero baita ere gatazken ebazpenean prestatutako, komunikazio ez bortitzean trebatuak dauden pertsonak egotea, bitartekari bezela. Instituzioak ere hor egotea, mediazio horretan baina beti medadore horren atzetik. Behar dire bilerak, behar da hitz egin. Konfliktu batean bi behar desberdin daude eta gerturatu daitezke. Egon dira munduan konfliktu asko eta hau ez da hain maila handikoa, guri iruditzen bazaigu ere. Gauza askoz ere grabeagoak daude eta mediazioarekin landu dira, eta hemen ere egin daiteke. Borondateak egon behar du alde guztietan, ez dagoen tokian ez dago pausurik aurreraka. Orduan alde batek izan behar du borondatea, besteak ere, instituzioak ere eta hartu behar dira mediazio lanerako pertsona onak.(...) Entzun behar dugu gizartea. Ulertu behar dugu. Umilagoak izan behar gara, entzun behar ditugu gazteak, eseri behar gara eta saiatu behar gera bilatzen amankomuneko gauzak. Diferentziak eraman behar ditugu, orain saiatu behar gera kontrako bidean ta da elkar konpartitzen ditugunak identifikatzen, mahai gainean jartzen eta gauza komunak elkarrekin lantzen. **(Ainhoa)**

Ya askoz gehiago gara ordun badakite aurrekoak nola pentsatzen dun, baina gazteen artian ez dakite zer pentsatzen duten, ordun ez dute hain errex horretaz hitz egiten. Hitz egiten da modu abstraktuan, baina ya ez gaude denak saku berdinean. Zeren hezitzaileak, zuek ere gazteak sartu zarete, alde batekoak eta besteak, ordun horrek lagundu du asko. Zeren nik orain sartzen direnean ikusten ditut, batzuk izango dire betikoak baina beste asko hezkuntzan daudenak, Alarde publikoaren alde daude. Sumatzen da ya ez dela lehengoa, aldaketa nabaria da ikastetxeetan. Hitz egiten da gai honi buruz. Lehen ez zen hitz egiten, orain hitz egiten da. Bueno, badire pausuak.(...) Lehenengo gauza da hitz egitea, hori da nagusia. Bigarrena erakusten zaiela zer den hezkidetzeta ta zer dan errespetua. **(Izaskun)**

Gaiaren inguruan hitz egiten hasteak onurak ekarri ditu eskolan, hein batean irakasle berriei esker. Onura horiek ikusita, hurrengo urratsa elkarrizketa horiek herri mailara pasatzea litzateke. Hezitzaileen ustez borondatea ezinbestekoa da hitz egiteko, aurrera egin ahal izateko.

### 3.6. 'Ezin da eten haizea'. Erosotasuna, generoa eta erresistentziak

Pedagogia feminista eskoletan txertatzea ez da erronka makala. Hau txertatzeko ez da aurretik dagoena suntsitu behar Iturriozen ustez. Garapenaren ondorio da proposamen hau, hortaz, jarritako egituraren gainean eraikitzen jarraitzen du:

Hezkuntzak barneratzen dituen anibalentzien jabe izanik, gure konpromisoa izango da hezkuntza publiko ez diskriminatzaile, ez androzentriko eta ez heterosexista bat sortzea. Horretarako hegemonia aztoratu beharko dugu, zalantzan jarritz bi gorputz daudela, bi genero daudela eta horiek lotzeko sexualitate arautu bat dagoela. Soilik horrela ekin ahal izango diogu galderak egiteko uneari, eta ez ote da hori irakasleonek eginkizuna? (Iturrioz, 2019)

1996tik 2022ra bitartean, nabari aldatu dira feminismoa eta pedagogia, baita hauek uztartzeko zubiak ere. Aurrerapen horrek herrian gertatu dena ulertzeko tresna desberdinak ekar ditzake, ikuspegi zabalagoa emanez, ez hain binarioa edo erredukzionista. Horretaz gain galdera berriak ere suertatzen dira. Esate baterako, Alarde Tradizionalean pertsona transen presentzia nolakoa izan daitekeen galde diezaiokegu gure buruari, izan gizon trans, emakume trans edo trans ez bitarra. Izan liteke emakume trans bat kantinera? Zer leku du pertsona trans ez bitar batek Alarde tradizionalean? Herriko hezitzaileei gai horren inguruan galdetzean, hainbat gako planteatu dituzte jaietan pertsona ororen inklusioa eta presentzia bermatzeko. Horretarako, eskolak binarismotik haratago jo behar du, aipatutako hegemonia astinduz eta logika bitar horiek apurtzeko estrategia eraginkorrenak txertatuz.

26 urte hauetan eman diren aurrerapausuak ikusita, gatazka hasieran izandako elkarrizketa bat du gogoan Joxak. Iturriozek, Butlerrek esandakoaren harira, dio boterearen eta jakinduriaren arteko aliantzak zehazten duela zer den onargarria, pentsagarria edo posible dena. Bere existentzia posible dela dakitenentzat, luxu bat da bizitza posible batean pentsatzea. Oraindik posible bilakatzeko bidean daudenentzat, ordea, premia bat da (Iturrioz, 2019).

Nik gogoratzen dut eskolako mantenua egiten duen pertsona, 96an edo 97an arraunlaria zela. Bera beti izan da gure aldekoa eta berak kontaktatu zuen betiko batzuekin hizketan, esaten zutela: "baina baina, zer, eta uain emakumean Alardean atutzen badire, gero zer? Kantinera aterako da gizon bat?" Ta esan zion bestiak: "hori ez da pasatuko inoiz, hik ze uste duk, trainerako egingo direla Donostian emakumeen trainerekin?" Esan zion gauza

irreal bat bezala, zailagoa zela ateratzea trainera bat emakumeekin Donostian, gizonezko bat kantinera ateratzea baino, eta gertatu da, inorrek ez diogu inongo pegarik jartzen horri, baina bestea, berriz, hor dago, tabu hori (...). Guk desde luego errespetatzen dugu beti umeak esaten diguna, potentziatu egiten dugu bakoitzak nahi duena egitea. Nik Jaizkibel ikusi dut bilakatu dela gaur egun nahiko aukera polita. Jaizkibelek lortu behar duena da izatea leku bat Hondarribiko Alardean, ez izatea bera bakarka, aparte. Hori lortzen bada, hortikan jungo gera poliki-poliki dena inbaditzen.

**(Joxa)**

Ana Mari espazioak bakarka aldarrikatzean dagoen zailtasuna du hizpide, baita urteetan ezkutatuta bizi diren disidenteeek bizi behar izan dutena oroitu ere.

Denak gera pertsonak. Baina frente bat sortzen baldin badugu, pertsona banakoak izango dute zailago. Esan nahi dut, al disimulo egiten badugu, erraxago, baina hori ez da gure lehia. Esan nahi dut, izan behar du sin disimulo y sin nada, osea, bakoitzak nahi duen bezala, ulertzen? Orain arte bezala, pertsona asko bizitu dire al disimulo, pues bizitu dire baina ixkutatuta. Neretzat hori ez da sanua. Baina bueno bakoitzak beria eta nahi duena egin behar du dudarik gabe (...) Edozeinek edozein modutara atera behar du eta yasta. **(Ana Mari)**

Ainhoak komunikazioaren, erreferenteen, erresistentzien eta erosotasunen inguruan dihardu pertsona disidenteen inklusioari dagokionez. Argi dauka erosotasunetik at jardun behar dugula hezitzaileok gizartea eraldatzen laguntzeko. Eskola prest ikusten du binarismotik haratago joateko, hezitzailek beharko luketen konpromiso sozialak hori errazten duelakoan. Garbi ikusten du zeintzuk diren hezkuntza duin baten printzipioak, baita lanketa horrek Alardean izan ditzakeen onurak ere, gorputz disidenteei dagokienez. Guk geuk, irakasten dugunok, gorputzaren eta adimenaren arteko logika bitarra ere apurto beharko dugu. Ikasleekin batera irakasleok ikasten darraigu, hala bizi du ikaskuntza-irakaskuntza prozesua Ainhoak. Horretarako, esparru malgu eta ausartak sortu behar ditugu, non ziurgabetasuna eta indefinizioa nabarmentzen diren, normaltasun ereduaren gainetik (Iturrioz, 2019).

Konplexua badirudi ere, hau guztia ez da hutsetik asmatu behar, ikuspuntua aldatu behar dugu eta ez besterik, arraroa gure munduaren parte baita dagoeneko, ikuspegia birkokatu behar dugu, ez besterik. Helburua da ardatza mugitzea eta normaltasunaren eredutik harago doan curriculum bat lantzea, identitate desberdinentzat tokia egingo duen curriculum bat, hau da, desberdintasunean eta deserosotasunean oinarriturikoa. Gorputz dislokatuak eredu izango dituen, curriculum bera dislokatuz. (Iturrioz, 2019)

Iturriozek dioen moduan, aurretik dagoenaren gainean eraiki behar dugu, eta Ainhoak erosotasunaren inguruan egiten duen hausnarketarekin du lotura.

Gizartea bultzatzen duenak, hara eramaten gaitu eta hala gertatzen ari da. Binarismoa orain arte ez genekien zer zen, hori duela urte gutxiko kontzeptua da, eta berdina beste gai askorekin. Gertutik bizitzen dugun heinean, normalizatzen eta ulertzen laguntzen gaitu. Nik uste dut eraldaketa handia egondu dela, komunikazioaren garaian gaude. Telebistan ikusten ditugu: harreman binarioak, ez binarioak, poliamor... Ikasleek dute interesa entzuten dutena ulertzeko. Kontzeptu guzti horiek niretzako berriak dira ere, eta pozten naiz pila bat. Gustatu ahal zaizu edo ez, baina hori aurrean jartzen da eta ikusten ari da, eta ikusten ari garen heinean integratzen ari gara. Normalizatzeko bidean sartu gara. Nik uste dut gizartea eraldatzen ari dela, eta Alardea berdin. Hori gizarteak bultzatuko du, eta hori ezin da gelditu. Erresistentzia batzuk egongo dira beti ta beti egon dira, arlo guztietan. Gizartea aurrera doan heinean guk ezin dugu gelditu, nahita ere. Gertatzen dena da ea nola integratuko dugun zehazki gure herrian, izaera ta identitate konkretu hori dagoen honetan, eta erresistentziak horrela ematen diren honetan. Ba bueno, agian denbora gehiago beharko du, beste batzuetan gutxiago baina ezin da eten haizea, ezin da.(...) Binarismotik haratago joateko prest ikusten dut eskola hezitzaileak prest baldin badaude konfliktoari aurre egiteko. Beti egongo dira desadostasunak, metodologiarekin gerta daitekeen bezala. Prest gaude gurasoak eta kanpotik etortzen zaizkigunean beste zenbait erresistentzia inkomodo horiek sostengatzera eta aurre egitera? Noski gaudela prest. Subestimaten dugu inkomodoa den hori lantzeko dugun gaitasuna, baina nik ez dut sinisten argumentu horietan. Ulertzen ez detena da komodidadean geratzea. Norbaitek mina badu ezin naiz geratu en estado de confort. Denok egin behar dugu zerbait, edo behintzat ez izorratzea ta ez izorratzea da besteak ez etetea. Merezi du, noski merezi duela. Gure gazteak izango dira gure agintariak, gidatuko gaituztenak, zainduko gaituztenak. Askatasunean, berdintasunean eta elkar zaintzan hezitzen baditugu babesten gea guztiak. Badakigu egongo direla erresistentziak, baina, merezi du, ezta? Zerbaitetarako gaude hemen. **(Ainhoa)**

Izaskunek azken urteetan Bidasoaldeko eskoletan aniztasuna lantzeko eginiko ahalegina aitortzen du. Halaber, genero gabeko figurak barnebiltzen dituen jai publikoak ditu ipar. Horretaz gain kritika egiten dio Hondarribin agerikotzat duen itxurakeriari.

Edonork izan beharko luke lekua jaietan. Hondarbin bai, margotu dituzte LGTBQ+ koloreekin bankuak, zertarako? Itxura egiteko. Hondarbin iten dena da itxura, ta horrela ez goaz aurrera. Zuk ez baduzu onartzen emakume bat atatzia txilibitoakin, onartuko duzu trans bat zure Alardean atatzia kantinera? Guk ez degu izango, iristen darian momentua, inongo arazorik. Ari dire, nik uste, lanketa bat egiten, herri mailan eta oso ondo dago. Noski egin behar ditugula ikustarazi, baina hori ezin da eman esparru batean



eta bestean ez. Euki behar du islada Alardean, atera nahi badu gero Alardean, atera beharko luke. Gogoia daukat ikusteko zer gertatuko den hori ematen denean, agian lagunduko du konturatzera figurak izan behar direla generorik gabe.(...) Hezkuntzan ari dira mugimendu horiek egiten, oso aberatsak, transekin, ta ni pozten naiz pila bat. Horrek gero Alardeari begira buelta bat izango du ta ea nola kudeatzen den. (...) Eskola orokorrean prest dago binarismoari aurre egiteko. Hezkuntzan bai ari direla hori ondo lantzen, hausnarketak egiten... Jakinmina dut ikusteko besteek nola kudeatzen duten hori: “bai,oso ondo! Biñon zu hemen ez”. Ea nola egiten duten hori.(...) Nik uste dut lortzen badegu publikoa izatia ta emakumeak parte hartzea ta figurak genero gabe izatea, ya esta! Lehen ez ziren atetzen beltzak, ta orain beltz bati beltza izateagatik ez ateratzeko esaten bazaio, ¡la que montamos! Baina emakumea izateagatik ez eta gainera ez dire matxistak... ¡Un poquito de por favor! Lortzen denian emakumeak parte hartzea, gauz gehiago jungo dira atzetikan. Generorik gabeko rolak normalizatzean, beste guztia etorriko da atzetikan. **(Izaskun)**

Generoaren inguruko ulerkera aldatu egin da azken hamarkadetan, gazteen ikuspegi zabalagoak inklusio erreal bati ateak irekiko dizkiolakoan, hauen egitekoa azpimarratzekoa da.

### 3.7. Gazteria bidea urratzen: Lehen Hezkuntzan dago gakoa

Gazteon indarra aintzat daukan gizarteak erabakitasunez eginen du bidea. *Gaztediarena*, Skabidean.

Harrotasun, nortasun, askatasun, eraldaketa, prestutasun eta itxaropen zaporez ulertzen dute elkarrizketatuek herriko gazteria. Areago, hauei esleitzen diete eman diren aurrerapausuen merituaren zati handi bat. Aurreneko belaunaldiei men egin baino, gai berriak mahaigaineratu dituzte, ikuspegi zabalagoak txertatuz familia bazkietan zein egunerokotasunean. Hamaika korapilok nahasi dute herriko gatazkaren mantua; lekukoaren aldaketarekin, aire freskoz askatuko delakoan daude hezitzaileak. Besteak beste, 2019an Guztion Alardea taldearen sortu izana aipatu dute hezitzaileek.

Andreak soldadu gisa onartzen ez dituen desfilearen bueltakoak dira: Alardean ateratzen diren gizonak, kantinera izandako emakumeak eta desfilea espaloitik ikusten dutenak.(...) Gogora ekarri dute gaur egungo Alardea “mendeetan izandako aldaketa askoren emaitza” dela, ez dela beti berdin-berdina izan, eta nabarmendu dute “XXI. mendeak eskatzen dituen aldaketak bermatu” egin behar direla errituaren etorkizuna ziurtatzeko: “Horregatik, Hondarribiko emakume bakar batek Alardean modu batean zein bestean parte hartzeko nahia badu, eskubide osoa duela iruditzen zaigu. Hain zuzen ere,

bakoitzak bere aukera modu askean egitean datza gatazka honi amaiera emateko modu bakarra". (Asensio, 2019)

Zenbait gaztek 2019an jarrera aldaketa hau eman izanak aurrerapausu bat suposatu izanagatik, hasiera hasieratik berdintasunaren alde borroka nekeza egin duten gazteek berebizibiko garrantzia izan dute, urtez urte tinko mantendu dira jai eredu feminista eta publiko batengatik borrokan.

Pandemia aurretik hasi ziren herrian mugitzen holako hizketaldi batzuk, gazte talde batek eginikoak, bere garaian betikoak zirenak eta pixkat ikusten dutenak aldaketa bat behar dela... hortik etorriko da. Aldaketa etorriko da pertsona horiek hasten direnean seme-alabak izaten eta horiek, alabak batez ere, hasten direnean esaten "Aizu, neri gustatzen zait Alarde tradizionala baina nik atera nahi dut Alardean". Gertatzen dena da pertsona batzuek hartu zutela erabakia oso gogor bere garaian. Baina bueno, haien seme alabak izango dira agian betikoak baina ez dute inongo arazorik izango ikusteko Jaizkibel edo beste konpainia batzuk, ez? Belaunaldi horrek eragingo du lehengo belaunaldian, pentsatuaraziko die. **(Joxa)**

Ana Mari Jaizkibel konpainiaren hazkuntza nabaria du hizpide, umeek Jaizkibelen duten lekuari erreparatuz.

Kalderero pila bat ditugu beti, ta handitu dire ta pasa dire txilibitotara. Badakigu positiboki lehen, hasiera batean ez zirenak Jaizkibeletakoak, orain badirela eta urtero ditugu ume pila bat. Orduan gurasuak eramaten dituzte, eta bueno, 40 izatetik orain 800 izan ginen azkenekoan. Orduan, herria aldatu da, gurasoak aldatu dire, haurrak bultzatzen dituzte gurasoak, hori dudarik gabe. **(Ana Mari)**

Ainhoa erdigunean jartzen ditu herriko gazteak, hauengan ikusten duen ikuspegi zabalak eta eraldaketa grinak konponbidera eraman gaitzakitelakoan, honako hau du esateko:

Generazionalki, egungo gazteengan guk duguna baino ikuspegi zabalagoa ikusten dut, bai generoan, sexualitatean... Zabalduta egin da. Integratua dago sistematik ekartzen duten hori, eta patrioiak errepikatzen dira nere ustez, asko. Gauza bat da zer dioten sistemak, eta gero zuk garatu beharko duzu zure kriterioa, zure argumentua ta zure nortasuna sendotu. Momentu batean hartuko dituzu zure erabakiak eta ulertuko duzu zure burua non kokatzen duzun, eta zeren alde zauden. Nik uste dut askatasuna, berdintasuna, inklusioa... horiek direla abanderatu behar ditugun printzipioak, eta horretara iritsiko dira gure ikasleak, neri hala gustatuko litzaidake.(...) Badut gazteengan

esperantza, poliki-poliki gauzak eraldatzeko eta ikusle pasibo izatetik, aktibo izatera pasatzea. Denbora pasa da, eta eman digu tarte gaizkiak ulertzeko soseguz. Gaztiak ikusten ditut hasiera batean, ba posizio batean zeudenak eta poliki-poliki ausardiaz hasi direnak errebelatzen egoerara, besteri adierazten jarrerak, ez muturrekoak, baizik eta kontziliatzaile baterako bidea urratzen hasi direla. Ausartzen dire aurpegia ematen, relatoak egiten, grabatzen eta besteen aurrean jartzen. Mahai gainean jarri dute gaia eta nik uste dut hori dela aldatu dena eta horregatik dut esperantza. Gero eta gazteagoak diren hoiek etxetik izan dute posizio bat, emakumeak Alardean ez parte hartzearen aldekoa, eta seme-alaba horiek ari dira hori aldatzen. Ari dira gurasoei horrelako ikuspegi eraldaketa hori ematen, pildora hori ematen Nere ikasle izan direnak, beren familien posturak oso irmoak ziren horienak, hori adierazi dute kamara baten aurrean. Hori iruditzen zait jarrera ausarta eta horrekin aktibatu dira eta aktibatu nahi gaituzte. Prest daude kritikarako eta prest nago horretan sinisten dut, neska-mutil gazteak hori egiten ikustea oso polita da neretzat eta esperantza handia dut. Neretzako esperantza dago gazteetan, beraiek dire etorkizuneko gizartea. Entzun behar ditugu gazteak. **(Ainhoa)**

Amaitzeko, Izaskunek Lehen Hezkuntzan duen esperantza adierazten du.

Lehen Hezkuntzan dago gakoa. Lehen Hezkuntzan iten badegu landu, nerabezaroan sartzean izugarritzko zama hartzen du taldeak. Ordun taldean sartzen badira hainbat gauzetaz hitz egin ondoren, hausnartu ondoren ta ikusita normala dela, zailagoa izango dute bestian pentsatzea. Hasi behar gera Haur Hezkuntzan, jarraitu Lehen Hezkuntzan, eta hor egiten denak emandako emaitza ikusi DBHn(...) Azkenengo urtetan hor dago Guztion Alardea. Zer gehiago nahi du udal batek ikusita herria aldatu dela? Gu ya gera 1000 ta piko pertsona, gehi Guztion Alardea, gehi gizartea aldatu dela... **(Izaskun)**

Jaizkibelen hazkuntza, gazteek aurreko belaunaldiei begiak ireki izana eta sinisten dutenaren alde egitea, hauen boterearen erakusleak dira. Gazteen erabakitasunak, kemenak eta grinak argi uzten dute gazteriak daramala iraultzaren batuta. Eskolak hau potentziazten badu, abiadura bikoiztu egingen da.

## 4. Ondorioak

Lanaren helburu nagusia Hondarribiko eskolan Alardearen gaiari nola heldu zaion mahaiaren gainean jartzea izan da. Zehatzago esanda, gaiaren inguruan egin diren ikerketei hezkuntzaren arlokoa gehitzea izan da xedea. Horretarako, azkenenengo hiru hamarkadetan herriko eskolan lan egin duten profesionalen bizipenak zein usteak jaso ditut. Lau ahots iraultzaile tartekatuz, herriko istorio txiki bat kontatzen saiatu naiz. Euren begiradaren bitartez, eskolak 90. hamarkadatik gaur egunera bitartean eman dituen aurrerapausuen berri emateko saiakera egin dut. Ana Mariaren erabakitasunak, Joxak Alardeari dion errespetuak, Ainhoaren eraldaketa grinak eta Izaskunen borroka nekaezinak, besteak beste, mantu hori josten lagundu didate. Lau hezitzaile hauek eta beste askok egindako ahaleginek eskolak aurrerapausu asko ematea ahalbidetu dute, oztopoei borroka aurre eginez. Euren testigantzak lotuz, eskolan gatazkaren harira bizitako zailtasunak jaso ditut, baita korapiloak askatzeko gakoak identifikatu ere.

Eskolan Alardearen gaia lantzea oztopatu duten faktoreak identifikatzeko balio izan dit, beraz, lanak. Hiru elementu nagusi identifikatu ditut: gizartea, gurasoak eta instituzioak. Arazo honek kutsu lokala duen arren, identifikatutako hiru erraldoi horiekin topo egiten dut edonora noala ere. Etorkizuneko hezitzaile bezala, gizarteko gai tabuei helduko badiet (espero dut hala egiteko adorea izatea), jakitun naiz instituzioek eta gurasoek eskuko freno jar dezaketela. Balazta horiek eragiten duten beldurraz jabetu izan naiz praktikaldietan ere: zimenduak gehiegi ez aztoratzeagatik, gai asko ez dira ukitzen, eta egitekotan gainazaletik egiten dira. Horren adibide dira astero kolektibo minorizatuek jasaten dituzten erasoen aurreko pasibotasuna.

Zailtasun askori aurre egin ostean, elkarrizketatuek argi dute zeintzuk diren eraldaketaren motoreak egungo gizartean. Batetik, dialogoaren garrantzia azpimarratu dute, sinplea dirudien arren, komunikazioa ez baita beti ematen. Gizarteak feminismoari dagokionez eman dituen aurrerapausuak ere ezinbestekotzat dituzte. Azkenik, aipatzekoa da elkarrizketatuek belaunaldi berriengan jarrita duten itxaropena.

Ez dugu inoren baimenik behar berdintasunez jarduteko, hala irakatsi ziguten sotoetik atera ziren emakumeek\*, lehen aldiz Hondarribin Alarde parekidearen defentsan atera zirenak hain zuzen ere. Debekuen aurrean erantzuten ere irakatsi digute, Laboaren hitzak erabiliz, ezaren gudaz baietak sortuz. Izan ere, arauaren barne ez dagoen orok milimetroz milimetro borrokatu behar du bere espazioa. Feminismoan askotan hesi erraldoi baten aurka

borrokan gaudela dirudien arren, atzera begiratzean, borrokak ekarri dizkigun konkista guztiak ikus ditzakegu. Etsipenak jotzen gaituenerako, atzera begirada botatzeak balio digu borrokak merezi duela gogoratzeko. Mundua gure kontra izateak nazkatzen gaituenerako, eta noraezak jota gaudenerako, Onintza Enbeita bertsolariaren hitz hauek:

Ezertan sinisten ez duenak edozer egin dezake inolako kontraesanik gabe, baina zerbaiten parte denak edo zerbaitetan sinisten duenak zail izaten du erabakirik hartu beharrik gabe aurrera jarraitzen. Erabat gure kontra eraikitako mundu batean bizi gara, eta gauzak diren baino justuagoak izateko borroka egiten dugu, baina, aldi berean, munduak gure kontra egoten jarraitzen du eta han bizi behar dugu. Horregatik sortzen zaizkigu kontraesanak, haserreak eta zalantzak, eta horiek ere ederrago egiten dute biziak. Izan ere, koherentzia gogorra bezain ederra da, eta haren izenean ez dugu guardiarik jaisten. (Enbeita, 2022)

Lan honek baditu mugak ere. Lehenengo eta behin, Euskal Herritik at egoteak elkarrizketen prozesua korapilatu egin du tarteka. Elkarrizketak modu telematikoan egin izanak sakoneko elkarrizketei aberastasuna kendu diela deritzot. Hala ere, elkarrizketatuen prestutasunak bidea erraztu du. Nire asmoa gatazkak Lehen Hezkuntzako etapan izandako eraginetan sakontzea zen arren, askotan elkarrizketatuek eskolaz modu orokorragoan jardun dute, eta Lehen Hezkuntzako etapan jarri nahi nuen fokoa diluitzea ekarri du horrek batzuetan. Bestalde, joera horrek eskolako errealitatearen argazki zabalagoa eskaini dit.

Horrez gain, hasiera batean Alarde Parekidearen kontrako eta aldeko iritziak zituzten hezitzaileen diskurtsoak biltzea zen asmoa, baina lanaren dimentsioa dela-eta, berehala baztertu nuen ideia. Alde batetik, lanaren luzeerak zaildu egiten zuen aldeko eta kontrako argudioak biltzeak eskatzen duen konplexutasuna. Bestetik, lan honekin bai eskolan eta bai jai eremuan eredu feminista eta publikoei babesa ematen dieten ahotsak bildu nahi nituen. Aurrera begira, interesgarria litzateke iritzi anitzagoak biltzen dituen ikerlan sakonago bat aurrera eramatea. Beste jarraibide bat izan liteke eskolan lantzeko Unitate Didaktiko bat diseinatzea, utopikoki halakorik behar ez izatea gustatuko litzaidakeen arren.

Eremu pertsonalean benetan baliagarria izan zait ikerketa hau. Batetik, jai herrikoi, publiko eta parekideak amets dituzten hezitzaileekin topo egin izanarekin oso eskertuta nago, nire herriko jaia eta borroka hobeto ezagutzeko aukera eman didatelako; lan akademiko bat izanda ere, gozatu egin dut. Bestetik, eskolaren eta gizartearen artean zubi gehiago eraiki behar ditugula ikusi dut, diskurtsoak eta praktikak uztartuz uneoro. Asko dira irabazteke ditugun borrokak oraindik ere. Nondik gatozen ahaztu gabe, norabide onean

goaz. Ikasleak erdigunean jarriz eta hezkuntza inklusiboa lagun, ezer gutxik geldi dezake olatu hau.

Eskolak beharrezkoa du gizartearekiko kohesioa: ez da hezkuntza hezkidetzaille bat emango, gizarte androzentriko, patriarkal, cisheterosexista eta pribatizataile honetako gainontzeko eragileek ezer egiten ez badute. Familia eta eskola dira gizarteratze espazio garrantzitsuenak, eta horietan jasotzen dituzten mezuak kontrajarriak badira, zaila izan daiteke kontraesan horren baitan ikasleek euren burua kokatzea. Barreneraino sartu dizkiguten konparaketa, diskriminazio, aurreiritzi eta diskurtso mingarriei planto egitea dagokigu gazteoi orain. Joxak, Ana Marik, Izaskunek eta Ainhoak itxaropentsu luzatutako lekukoari heltzera goaz.

Gora Jaizkibel!

# Bibliografia

- ASENSIO-LOZANO, Maite (2019). Hondarribiko Alardeko gazte batzuek andreen parte hartzea babestu dute. *Berria*.  
<https://www.berria.eus/paperekoa/1962/002/001/2019-10-08/hondarribiko-Alardeko-gazte-batzuek-andreen-parte-hartzea-babestu-dute.htm>
- BARREÑA, Maite, ITURRICASTILLO, Nahia, NIETO, Mireia (2019). Askatasuna. *Anboto*.  
<https://anboto.org/komunitatea/hitzezetaahotsez/1563870273003-askatasuna>
- BELTRAN DE LUBIANO, Alazne (2019). Ukazioaren gainetik, aurrera goaz. Zorionak, Jaizkibel! *Berria*.  
<https://www.berria.eus/paperekoa/1950/021/002/2019-09-11/ukazioaren-gainetik-aurrera-goaz-zorionak-jaizkibel.htm>
- BELTRAN DE LUBIANO, Alazne, ZUFIA, Amaia (2018). Festak politikoak dira. *Argia*.  
<https://www.argia.eus/albistea/festak-politikoak-dira>
- BULLEN, Margaret (2017). La antropología feminista: Aportaciones conceptuales para una epistemología participativa. In Jone Martínez-Palacios (editorea), *Participar desde los feminismos: Ausencias, expulsiones y resistencias* (29-63 orriak). Icaria.
- BUTLER, Judith (2018). *Genero nahasmendua: Feminismoa eta identitatearen subertsioa*. Eskafandra.
- CASARES, Aurelia (2006). *Antropología del género. Culturas, mitos y estereotipos sexuales*. Cátedra.
- EMAKUNDE (2021). *Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa hezkuntzan*.  
[https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas\\_evaluaciones\\_2](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2)
- ENBEITA, Onintza (2022). Koherentzia. *Berria*.  
<https://www.berria.eus/paperekoa/1881/018/002/2022-05-17/koherentzia.htm>
- GARCIA-IDIAKEZ, Mikel (2018). Non dago gorputza eskolan? *Larrun*.  
<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2584/non-dago-gorputza-eskolan>
- HIK HASI (2010). Familia eta eskola. Bi instituzio konplexu. *Hik Hasi*.  
<https://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20100103/familia-eta-eskola-bi-instituzio-konplexu>
- HONDARRIBIKO EMAKUMEAK (2021). Hondarribiko emakumeak erantzuten du. *Hondarribiko Emakumeak*, 7, 23.
- IANTZI-GOINETXE, Mainer (2017). Mutil gihartsu eta neska panpoxak testuliburuetan. *GAUR8*.  
[https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8\\_2017-10-21-07-00/hemeroteca\\_articles/mutil-gihartsu-eta-neska-panpoxak-testuliburuetan](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2017-10-21-07-00/hemeroteca_articles/mutil-gihartsu-eta-neska-panpoxak-testuliburuetan)
- IRAOLA-ALKORTA, Arantxa (2003). Tabua arintzeko lanabes bat. *Berria*.

- [https://www.berria.eus/paperekoa/1935/004/001/2018-09-07/tabua\\_arintzeko\\_lanabes\\_bat.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1935/004/001/2018-09-07/tabua_arintzeko_lanabes_bat.htm)
- IRAOLA-ALKORTA, Arantxa, ASENSIO-LOZANO, Maite (2018). *Alardea: Ukatutako plazara*. Aleka.
- IRUNGO BERRITZEGUNEA (2019). *Alardea. Proposamen Didaktikoa DBH*.  
<https://www.amarauna.euskadi.eus/baliabidea/Alardea-proposamen-didaktikoa-dbh/a6006232-9ba9-4424-a1c7-728ddeb056d9>
- ITURRIOZ, Josebe (2015). Zertan datza transfeminismo izeneko hori? *Galde*.  
<https://www.galde.eu/eu/tag/transfeminismoa/>
- ITURRIOZ, Nagore (2019). Hezkidetzatik Pedagogia Feministarantz. *Pikara magazine*.  
<https://www.pikaramagazine.com/2019/04/de-la-coeducacion-a-la-pedagogia-feminista/>
- IZAGIRRE, Gaizka (2021). Jaizkibel konpainia: “tradizioaren izenean herriari bere festak lapurtu dizkiote”. *Gaztezulo*, 226, 41-53.  
<https://www.gaztezulo.eus/albisteak/jaizkibel-konpainia-201ctradizioaren-izenean-herriari-bere-festak-lapurtu-dizkiote201d-1>
- MARQUEZ, Gorka, KEREXETA, Xabier (2005). *Bidasoako Alardeak, herria versus hiria*. UEU.
- PEREZ-PONS, Eva (2020). *Bollera identitatetik subjektu politikoaren egituraketara: Hego Euskal Herriko bollera taldeen diskurtso eta praktiketara bidaia* (Master Amaierako Lana). Euskal Herriko Unibertsitatea.  
[https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/47281/Eva%20Perez\\_Pons\\_%20MAL\\_addi.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/47281/Eva%20Perez_Pons_%20MAL_addi.pdf?sequence=1&isAllowed=y)
- SUBIRATS, Marina (2010). *La coeducación hoy: los objetivos pendientes*. Emakunde.  
[https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/proyecto\\_nahiko\\_formacion/es\\_def/adjuntos/2010.09.21.marina.subirats.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/proyecto_nahiko_formacion/es_def/adjuntos/2010.09.21.marina.subirats.pdf)
- SUBIRATS, Marina, TOME, Amparo (2007). *Balones fuera: Reconstruir los espacios desde la coeducación*. Octaedro.
- URRETABIZKAIA, Arantxa (2018). Hondarribiko Alardea: Zure askatasuna, nire aberastasuna. *Pikara magazine*.  
<https://www.pikaramagazine.com/2018/09/hondarribiako-Alardea-arantxa-urretabizkaia/>
- VITORIA-GASTEIZKO UDALA, BERDINTASUNERAKO ZERBITZUA (2020). *Instrukzioa: Generoa eta euskararen erabilera egokia*.  
<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/74/42/87442.pdf>





# Eranskina

## Elkarrizketaren gidoia

Kaixo, Oier dut izena, 21 urte ditut eta Gasteiztarra naiz. Lehen Hezkuntza gradua amaitzen ari naizen honetan, GRAL-a egiteari ekin diot. Nire familia Hondarribikoa da eta denbora asko eman dut hor txikitatik. 2000. urtean jaio nintzenez, ez dut Alarde bakarra ezagutu, baizik eta gatazka egoera hasita zegoela hazi naiz. Txikitatik jaso ditut nire ustez berdintasunean oinarrituta dauden baloreak, baita Alarde parekidearekiko babesa ere. Niretzat guztiz zentzuzkoa zen (eta da) Alarde misto eta publikoa babestea, eta ez nintzen gai beste perspektiba nundik jaiotzen zen ulertzeko. Haurtzaro eta nerabezaroan oso modu intentsoan bizi izan dut Irailaren 8a: penaz, haserrez, frustrazioz, inpotentziaz...

Familiako kide asko hezitzaileak dira, eta ni ere hezkuntza munduaz maitemintzen hasi nintzen. Horretaz gain generoaren inguruko teoriek eta hausnarketek ere asko harrapatu naute azken urteotan, izan nire identitateagatik edo nire bizipenengatik. LH gradua hasi nuenetik hezkuntzarekin zerikusia zuen oro egiterakoan genero berdintasuna eta aniztasuna inplantatzen saiatu naiz, edo, saiatu baino, barrenetik atera zait. Generoaz eta hezkuntzaz gehiago formatzen joan naizen heinean, Hondarribin gertatzen zena/dena ulertzen saiatzen jarraitu dut, edo, ulertu baino, nola konpon daitekeen asmatu.

Gai hau aspalditik buruan nuenez, nire tutoreari Gradu Amaierako Lana honen inguruan egitea proposatu nion, eta baiezkoa jaso nuen. Hezkuntza miresten duen hezitzaile oro bezala, gure diziplina erraminta biziki boteretsutzat dut, hortaz herriko gatazkaren konponbideari begira, eskola erdigunean jartzea aproposa iruditzen zait. Hezkuntza eta genero sistemen arteko lotua ulertzeko saiakera honetan, herriko hezkuntza publikoan parte hartu duten hezitzaileak beharrezko zaituztet. Zuen bizipen, iritzi eta desirak jaso nahiko nituzke. Baita urteetan zehar aldaketarik sumatu dituzuen ala ez, zein norabidetan... Iraganera begira baino, etorkizunera zuzendu nahiko nuke lan hau: konponbide posibleak, eskolaren egitekoak, irakaslearenak, herriarenak...

Mila esker zuri elkarrizketa hau egiteko aukera emateagatik!

PD1: Edozein galdera erantzun nahi ez izatekotan, ez da ezer gertatzen. Baita errepikatu behar badizut, adierazi arazorik gabe.

PD2: Elkarrizketa transkribatzerako orduan errazago izateko, ahotsa grabatuko dut ondo iruditzen bazaizu. Ez dut inorekin partekatuko.

PD3: Elkarrizketa hau konfidentziala da, nahi ez izatekotan zure izena ez da zertan agertu behar, fikziozko bat jarri dezakegu.

## **GALDERAK**

### **SARRERA**

- Hasteko gustatuko litzaidake zure burua aurkeztea, eta horrekin batera hezkuntza munduarekin izan duzun harremana azaltzea: hasiera, ibilbidea... baita Hondarribiko eskolarekin duzun lotura (noiz hasi zinen bertan, noiz arte eta zein kargutan).

### **ALARDEA**

- Zein izan da zure harremana/ibilbidea Alardearekin? Zein puntutan zaude orain?
- Nola bizi duzu gatazka? Zein irakurketa egiten duzu gertatutakoaz?
- Nola baldintzatu zaitu Alardearen inguruan duzun ikuspuntuak hezitzaile bezala?

### **ESKOLA**

- Eskolan egon zaren bitartean, nola bizi izan da bertan herrian gertatutakoa? (Gatazka aurretik, hasiera, eta garapenean). Eta zuk, nola bizi izan duzu? Baduzu aipatzekoa den oroitzapenik?
- Eskolan gaia lantzeari begira, zeintzuk izan dira instituzioetatik jasotako kontsignak?
- Nola sentitu zara eskolan herrian gertatutakoa landu izan baduzu? Zeintzuk izan dira ondorioak? Hezitzaileen artean nola bizi izan da iritzi desberdintasuna? Zein izan da gurasoen jarrera gatazka eskolan lantzeari dagokionez?
- Zein garrantzi ematen diote LHko ikasleek Alardeari? Eta mistoa ala ez mistoa izateari? Nola adierazten dute euren iritzia? Gatazkak ematen dira (edota eman izan dira) haien artean, edo ikasle-irakasle artean ?
- Eta zuk modu indibidualean? Zein modutan adierazi eta landu duzu zure posizionamendua, zein estrategia garatu dituzu?
- Era kolektiboan edo indibidualean Alardearen gaia landu izan denean, zein izan da instituzioen, irakasleen, ikasleen, gurasoen... erantzuna?

### **GAUR EGUNGO EGOERA ETA AURRERA BEGIRA**

- Atzera begiratu bat emanda, zein aurrerapauso eman dira eskolan Alardearen inguruko gatazkari dagokionean?
- Gaur egun, zein da eskolaren eta herriko egoeraren arteko harremana? Zeintzuk dira argi eta ilunak?
- Aurrera begira, zein uste duzu litzatekeela konponbidea, edo eman beharreko pausuak?
- Zein rol hartu beharko luke bakoitzak? Irakasle, ikasle, zuzendaritza, udal, guraso...

- Alardeko gatazka, historikoki, termino oso dikotomikoetan eman da. Generoaren ulerkerak berriek, aldiz, sexua, generoa zein sexualitatea continuum bezala ulertzen dituzte, ar/eme, gizon/emakume edo heterosexual/homosexual bezalako sailkapen dikotomikoak kuestionatuz eta deseraikiz. Zer paper uste duzu izan dezakeela paradigma aldaketa horrek Alardearen inguruko gatazkan? Zer onura ikusten dizkiozu? Zer arrisku? Zeintzuk dira erronkak?
- Prest ikusten duzu eskola genero binarismotik (neska-mutil binomiotik) haratago joateko?
- Nola bihur liteke Alardea ospakizun inklusiboagoa, emakume, identitate ez bitar eta disidenteak jaiaren parte sentitzeari begira? Zein paper dauka hemen eskolak?
- Aipatzeko geratu zaizun zeozer?